

Herririk Herri |3|

Izurtzako industriagunean auzitegiek
Udalari arrazoia emon deusie

Ekonomia |10|

Durangaldeko Esperientzia Institutuak
ikastaro barriak antolatu ditu



Berbaz |9|

Jon Aitor Ibarzola: "Lankideak
laguntasun handia emoten dabilz"

Geltokia egiteko eskatu deutso Udalak Jaurlaritzari

> Kriaren eraginez, Hadiden proiektua
bertan behera iztea aztertzen dabil ETS

> Durangoko Udalak arkitektu
iraniarraren proiektua babestu dau

3



'Durangaldea maite dugulako' kanpainari ekin deusie asteen

Durangaldea • Durangalde "alternatibo" baten aldeko kanpaina abiatu dau ezker abertzaleak, *Durangaldea maite dugulako* goiburugaz. Asteon emondako prentsaurrekoan jakinarazi dabenez, kanpainak izaera "informatiboa" eta "aldarrikatzailea" dauka. Lau multzo landuko ditue: mugikortasuna, jarduera ekonomikoa eta etxebizitza, ingurumena, eta, herriko ekipamenduak.

Lurralde Zati Planari aurkeztutako alegazinoen erantzunetan "akatsak" ikusten ditueela dinoe. Lurzoruaren "gehiegizko erabilpena" salatu dabe, besteak beste.

2



Iban Gorriti

•lurreta

Udaltzaingoa asteen
lekualdatu dabe herrigunera 5

•Mallabia

Lehenengoz jarriko dabe
martxan 'Berbalagun' 5

•Elorrio

Frontoia estaltzeko zortzi
hautagai daukaz Udalak 6

•Atxondo

Webgune barria jarri dau
martxan Udalak 6



Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944
IBAI URIEN

**APAINGARRIA ETA
INDUSTRIALA**

- Fatxadetarako proiektu bereziak
(inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko
dekorazioak
(lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

"Egiazko" garapen jasangarria sustatzeko kanpaina aurkeztu dabe

Lurralde Zati Planari kontra eginez, Durangalde "alternatiboa" bultzatu gura dau ezker abertzaleak

Datozen 16 urteetan Euskal Autonomia Erkidegoaren –eta bertako herri guztien– garapenaren ildoak markatuko ditu Lurralde Zati Planak (LZP). Plangintzari ipinitako alegazioen erantzunak oraintsu jakinarazi ditue. Durangaldeko ezker abertzaleak hainbat akats ikusten deusaz egitasmoa osatzeko erabilitako prozesuari zein edukiari. Horregaitik, *Durangaldea maite dugulako* izenpean Durangalde "alternatibo" baten aldeko kanpaina abiatu dabe.

Batetik, salatu dabe egitasmoak oinarrian huts egiten dauela: "gaur egungo marko politi-

Kanpainak izaera informatiboa eta aldarrikatzailea dauka, eta hainbat eremu jorratuko ditue: ekonomia, mugikortasuna...

LZPk garapen iraunkorra dauela oinarri baina "praktikan ez dela hori betetzen" salatu dabe

koan, Euskal Herriak ez dau ahalmenik herrialde osoa kontuan hartuta lurralde antolamendua zehazteko. Hiru eremutan banatuta dago. Eremu horreetako bakoitxak erritmo bat dauka, eta koordinazioa falta da", adierazi eban David Cobos atxondoko alkateak. Horrez gainera, LZPren prestaketan "herriei, herritarrei eta gizarte eragileei kontsultatu ez izana" salatu eban.

Edukiaz, LZPk garapen iraunkorra daukala oinarrian "eta horren alde" dagozela dinoe, "baina errealtatean planak garapen politikaren eta gitxi batzuen interes ekonomikoen alde" egiten dauela.

Planak ia 6.000 etxebizitza eraikitzea eta industriaguneetarako 152 hektarea gordetzea aurreikusi dau. Ildo horretan, lurzorua- ren "gehiegizko erabilpena" salatu eban, baserritarrei eragiten deusalarik.

Kanpainak izaera informatiboa eta aldarrikatzailea dauka, eta lau gai multzo landuko ditue: mugikortasuna, jarduera ekonomikoa eta etxebizitzak, ingurumena, eta, herriko ekipamenduak (*www.durangaldeamaitedugulako.com* webgunea, kaleko ekimenak, mahai inguruak...). "Egiazko" garapen jasangarria bermatzeko hitzarmena gura dabe. ■ J.D.

MAÑARIA

Zalloventaren ustiapen eremua hedatzeko prozesua etetea eskatu dabe

Aralar, PP, PSE eta UPyD-k adostu, eta onartu dabe eskari horixe jasotzen dauen proposamena

Ekainean burutzekoa zen baina aste honetara arte atzeratutako osoko bilkuran, Zalloventa harrobiari erreferentzia egiten deusien hiru puntu mahaigaineratu eta onartu ditue Aralar, PP, PSE eta UPyD alderdiek Gasteizko Eusko Legebiltzarrean: Zalloventa harrobiari buruz Ingurumen Sailak 2009ko urtarrilaren 27ko ebazpena berehala etetea; Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana aldatzeko martxan dagoen prozedura bukatu bitartean harrobiaren ustiapen berri bat eskuratzeko prozesua etetea; eta harrobia bere onera ekartzeko proiektua gara-

tzea eskatzen dauena. Lau alderdi horreen aldeko botoagaz aurrera egin dabe proposamenek. Hiru puntuen bozketan abstenitu egin da, aldiz, EAJ.

Hemendik aurrera, Gobernu sozialistak "Zalloventa harrobiaren jarduera bertan behera izteko erakutsi dauen konpromisoagaz", proposamenaren bultzatzaileen berbetan, "ez dago atxakiarik Zalloventa harrobia ez ixteko. Legebiltzarkideen gehien- goak eskaria egin deus asteon, beraz, Gobernuari.

Naturguneak babesteko

Bestalde, Natura Babesteko Legearen aldaketa ekarriko dauen lege besteko proposamena be onartu dabe eguazteneko osoko bilkuran. Alderdi guztiek egin dabe alde. Horrek "harrobiak babestutako naturguneetatik kanpora" gertzea bermatuko dauela nabarmendu gura izan dau Aralar alderdiak. Babestutako naturguneetan meatze-ustiapenikezin izango dela egin –ez haizetara ezta lur azpian be– aho batez onartu dau eguazten honetako batzarrean Eusko Legebiltzarrak. ■ I.E.

Harrobiak hartzen dauen eremua bere onera ekartzeko proiektua eskatu dabe

Aralarrek egindako proposamena osatu daben zuzenketak egin ditue PP eta PSE alderdiek

BERRIZ

Alokatzeko etxebizitzak erregistroa

Berrizko SUSA udal elkarte publikoak etxebizitza sozialen alokairurako eskatzaileen erregistroa berritzeko epealdia zabalduko dau irailaren 28tik urriaren 9ra bitartean. Urtebetez egongo da indarrean zerrenda berria.

Alokairuen kontratuak be epe bera edukiko dau: urtebetekoa. Halan be, maiatzean udalbatzak onartu eban alokatzeko etxebizitzaren araudian epe hori luzatzeko aukera aurreikusi dabe. Erregistroan izena emoten dauen eskatzaileak honako baldintzak bete behar ditu, besteak beste: adin nagusikoa izatea, etxebizitza behar izatea eta Berrizen erroldatua egotea.

Etxebizitza sozialen alokairurako eskatzaileen erregistroa berrituko dabe

Bestalde, Udalak beteko dituen hainbat lanetarako pertsonak kontratatzeko datu base propioa sortuko dabe. Etxez etxe galdetegia banatu dabe; irailaren 28tik urriaren 9ra udaltzainen bulegoan itzi daitezke. ■ J.D.

ZALDIBAR

Zinea eta literatura Liburutegian

Bihar Donostian amaiera ekitaldia ospatuko dauen Zinemaldia- gaz bateginda, *Zinea eta literatura* erakusketan izan da aste honetan Udal Liburutegian. Igaz egin eban legez, literaturak eta zine- mak sarritan izaten ditueen hartu-emonen isla den ekimena antolatu dabe. Haur, gazte zein heldu Liburutegira gerturatu daitezen bertako arduradunak bihar arte luzatzen deuskun zeluloidezko amua da aitatutakoa.

Haur, gazte zein helduak Liburutegira gerturatu daitezen antolatzen dabe arduradunek ekimena

"Film bakotxak bere liburu- rua daukala" erakustea helburu dauen ekimenean, filmak eta liburuak elkarregaz ipini ditue irakurleentzako aukeran: liburu- ruetan oinarritutako filmak ipini ditue erabiltzaileen eskura.

Neguko ordutegian, 09:00- etatik 12:30era eta 15:45etik 19:45era zabalik dago Liburutegia, eta bihar arte literaturaren eta zinemaren ekimena. ■ I.E.



Urkuleta auzoko 'Canteras y Hormigones Zalloventa'. Iban Gorriti



DURANGO

Hadiden diseinua gauzatu daiala eskatu deutso Gobernu Taldeak Jaurlaritzari

Atzerapena “ulergarria” ei da, baina “ez geunke ulertuko proiektua ez egitea”, jakinarazo dabe

Eusko Jaurlaritzatik Durangoko Udalarik jakinarazi deusienez, baleiteke Zaha Hadid-ek Eusko Trenen egoitza barria izan daiten diseinatutako proiektua bertan behera geratzea. Gobernu Taldeak jakinarazi dauenez Udaleko teknikoei emon deusie

Egoitza egin ala ez aztertzen dabilzela jakinarazi dau Eusko Jaurlaritzak

Gobernu Taldeak “oso garrantzitsutzat” jotzen dau proiektu osoa gauzatzea

horren barri. “Instituzionalki ez deuskue jakinarazpen ofizialik helerazo”, azaldu dabe udal arduradunek.

Beste bide batetik be azaleratu dabe aukera hori: Aralarrek Jaurlaritzari idatziz bidalitako galdera sortan itaundu eben hain proiektu handia Durango erdian kokatzea egokia ete den, 400 bat aparkaleku bakarrik aurreikusitueela kontuan hartuta; Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak emondako erantzuna honako hau izan da: “Eusko Trenen eta Euskal Trenbide Sarearen egoitzak hor kokatzeko aukerari buruz, gaur egun bizi dogun egoera ekonomiko gaxa kontuan izanda, erabaki bat hartu baino lehenago horri buruzko gogoeta egiten gabilz”.

EAIk osatutako Gobernu Taldeak obrak egiten jarraitzeko eskatuko deutso Jaurlaritzari. Durangoko garapen ekonomiko eta turistikorako egitasmo hori “oso garrantzitsua” dela deritzoe. Gaur egungo egoera ekonomikoa dela eta, “ulergarria da obrak egiteko



Bere diseinu futuristagaitik aukeratu eben Hadiden proiektua, besteak beste. Euskal Trenbide Sarea

arazoak izatea eta, ondorioz, atzeratu edo luzatu behar izatea”, dinoe, “baina ez geunke ulertuko egitasmoa ez gauzatzea”.

Lurperatze-lanak aurrera
Proiektua kudeatzeko ardua daukan Euskal Trenbide Saretik jakinarazo dabenez, proiektua gertzea erabakitzen badabe be, “lur gaineko eraikinari edo zatiari baka-

Euskal Trenbide Sareak jakinarazo dauenez, lurpeko tren geltokia eta galeria komertziala egin egingo ditue

rrik eragingo deutso”. Beraz, “tre-na lurperatzeko proiektuari ez leuskio eragingo; ezta lur azpitik aurreikusita dagoen tren geltokiarri, aparkalekuari eta galeria komertzialari be”.

Zaha Hadiden proiektua 2004an aukeratu eben. Proiektu osoak, egoitzaz gainera, inguruan bost etxebizitza eraikin eta parke bat be aurreikusten ditu. ■ J.D.

IZURTZA

Industriagunea bikoiztea eragotzi izana legezko jo dabe

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren sententzia emon dabe jakitera



Honen antzeko auzietan ez dira ohikoak Udalen alde egiten daben sententziak. I.Gorriti

Udaletxeko batzar aretoan egin dabe Udal Gobernuako hiru zinegotzik eta Lorea Muñoz alkateak martitzenean agerraldia. Arrazoia: AR-2 industriaguneari jagokonez izandako auziaren inguruko Udalaren balorazio juridiko eta politikoa egitea.

Aurreko Udal Gobernuak bultzatutako Industriaren Zati Plana onartzea geldiarazi eban 2007an herriko agintea hartu eban ezker abertzaleak. Talde horrek bertan behera itzitako industriagunearen ordenamendua azaltzen eban plan horretan jasotzen zenez, 90.000 metro karratuko industriagunea egingo zen herrian.

Lorea Muñoz: “Jabe pribatuen interes ekonomikoen ginetik, interes orokorra dago”

Muñozen berbetan, “2007ko maiatzean, udal hauteskundeak izan baino 20 egun lehenago egin eban gobernuak planaren behin-behineko onarpena, jabeen eta garapen industrialaren promoto-reen interes ekonomikoak blindatzeko helburuagaz”. Aitatutako egitasmoa geldiarazteagaitik auzibidea abiatu eben lau enpresak Gobernu berriaren kontra.

“Jabe edo promotore pribatuen interes ekonomikoen ginetik”, nabarmendu dabe prentsaurrean agertutakoek, “izurtzarren bizi-kalitatea eta interes orokorra” dagoz. Beste herri eta kasu batzuetan eredugarri izan daitekelakoan, oso garrantzizkotzat jo dabe Auzitegi Nagusiaren sententzi hori.

Helegitea sententziari

Plana bertan behera izteagaitik Udalaren kontrako auzibidea hartutako enpresak gogor kritikatu ditue ezker abertzaleko ordezkariak: Udalak hartutako Plan Partziala geldiarazteko erabakiaren kontra errekurtsioa aurkeztu eben lau enpresek, eta Auzitegi Nagusiak Udalaren aldeko sententzia plazaratu dauen honetan be helegitea aurkeztu dabe enpresek.

Industriaguneari jagokon plana osatzeko, “industrialaren eta ingurumenaren arteko oreka mantentzea” eta “izurtzarren parte-hartzea sustatzea” oinarri izango dituen Hiri Antolamendu barria zehaztea izango dabela helburu nabarmendu dau alkateak. ■ I.E.

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak barria herritarren parte-hartzeagaz diseinatzeko beharra nabarmendu dabe



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Kanpazar Erretea

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko
menua 11€



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostiralera. Asteburuetan bazkariak
eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02



DIURRETA

Udaltzaingoa aste honetan lekualdatu dabe herrigunera

Zerga-bilketarako zerbitzuagaz batera, Bidebarrietan dagoz dagoeneko

Etxe barria dauka dagoeneko Udaltzaingoa. Eguaztene-tik, Bidebarrietan egokituta-ko eraikinean dagoz udaltzainak; baitazerga-bilketarako zerbitzuabe. Horretara, Udaletxea “arindu” ez

rritzen” lagunduko dauela horrek. Udalak “motore” lan horregaz jarraitu daian “begientzat erakar-garria” den eraikina egingura izan dabe: “Inor epelitziko ez dauena”.

“Funtzionala” eta “deigarria”
Eraikina eskuratu eta atontzeko 600.000 bat euro erabili ditue. Oraingo, bost udaltzainek eta zerga-bilketarako lagun batek jardungo dabe 210 metro koadroko egoitzan, halan be, “laster” erre-gistroa eta bake-epaitegia be eroango ditue, alkateakesan daue-nez. Eraikin “funtzionala” sortu gura dabe Aitor Martinez de Zua-zo arkitektoaren berbatan, baina,

“deigarria” eta “moderno” be bai, “herria aurrera doan seinale”.

Errotulazino “modernoago-ko” auto barria (26.000 euro) be badaukie abuztutik udaltzainek. “Tokiko poliziak homogeneizatu” guran ‘Polizia’ berba “unibertsala-goa” erabili dabe, alkateak dino-nez. Aurrean, barriz, eguzkilorea daroa eta atzean ikurrina; herri-ko armaria be badaroa. ■ A.B.

Eraikin “funtzionala” ez eze “moderno” eta “deigarria” sortu gura izan dabe, “herria aurrera doan seinale”

Bake-epaitegia eta erregistroa be eroan gura ditue “ahalik lasterren” Bidebarrietara

eze, “herritargoagaz hartu-emona daukien hainbat zerbitzu gerturatu” gura izan dau Udalak. Halan azaldu dau Iñaki Totorikaguena alkateak, eta herrigunea “indarba-



Zerbitzu bakotxerako bulegoa, batzar-gela eta erabilera askotarikoa dagoz, besteak beste. A.B.

DI GARAI

Aste Kulturala Nagusien Elkartean

Joan zen martitzenetik, Aste Kulturalan murgilduta dabilz herriko jubilatuak. Garaiko nagusien San Miguel elkartea da ekimen horren antolatzailea, Astean zehar karta txapelketak izan ditue, eta gaur be mahaia- ren bueltan batuko dira Tortilla Txapelketan. Bere izenari kasu egi- nez, hilaren 29a izango da egun handia elkartearantz: San Migel Eguna. Eguerdiko 12:00etan meza izango da hildako bazkideen ome- nez, eta 14:00etan bazkaltzeko elkartuko dira Herriko Tabernan. Ondoren, elkarteko bazkide nagusienak omendu eta txapelketeta- ko sariak banatuko ditue. ■ M.O.

Auzotar ugari batu zen Santa Katalina ermitako jaian

Joan zen domekan ospatu eben Santa Katalina ermitako jaia Garain. Inguruetako herritar andana batu zen goiza giro onean pasatzeko asmoak eroanda. Mezagaz emon eutsien hasie- ra egunari. Horren ostean dantzaren txanda izan zen; auzoko dan- tzariz osaturiko taldeak eskaini eban saioa. Ekitaldi berezia zen hau, eta jentearen arreta lortu eban. Jai giroak eguerdian jarraitu eban. Izan be, luntxa prestatu eben Santa Katalinara hurreratu ziren guztiendako. Eguraldia be lagun izan eben, gainera, ez ebalako euririk egin. ■ M.O.



DI MALLABIA

EAJko ordezkaritza zabala Txoko Batzokiaren inaugurazioan

Eusko Alderdi Jeltzaleko hainbat ordezkari hurreratu zen, joan zen zapatuan, Txoko Batzokiaren inaugurazioan. Iñigo Urkullu EBBko presidentek berbaldea emon eban bertaratu zire- nen aurrean. Publikoan jesarrita zegozen, besteak beste, Andoni Ortuzar BBBko presidentea eta Juan Maria Atutxa. Inau- gurazioaren ostean bazkaria egin eben. Ekitaldiaren ardu- radunen berbatan, ekimenak “harrera ona izan dau”. ■ J.G.



‘Berbalagun’ jarriko dabe martxan lehenengoz

Euskaldun zaharrak eta euskaldun barriak barikuro elkartuko dira urriaren 2tik aurrera

Berbalagun ekimena lehenengoz jarriko dabe martxan Mallabian. Euskaldun zahar eta barrien tal- dea urriaren 2an elkartuko da, arratsaldeko 17:30ean. Interesa daukienez egun eta ordu horre- tan Herriko Tabernara hurreratu leikie.

Taldea barikuro elkartuko da, arratsaldeko 17:30etatik 18:30era, kafe orduan. Gura dauena, eus- kaldun barri zein zahar izan, ger- turatu daiteke eta parte hartu. Beharrezko balitz, talde bi sortze- ko beste lagun balego, beste ordu- tegi bat jarriko leikie.

Arduradunen berbatan, Ber- balagun euskaldun zaharrak eta euskaldun barriak elkarregaz har- tu-emonetan ipintzeko ekimena

da, eta helburu bi daukaz. Alde batetik, euskaldun barriek ikasi- takoa erabiltzeko mintzapraktika da. Bestetik, talde euskaldunak sortzeak herriko paisaia linguis- tikoan eragiten dau gune euskal- dun gehiago sortuz. ■ A. B.

Barikuetan kafe ordurako jarri dabe zita, 17:30etik 18:30era bitartean

‘Berbalagun’ ekimenaren helburuetako bat herrian gune euskaldunak sortzea da

DI OTXANDIO

Ludoteka eta udalekuak Udalaren esku

Udaleku zerbitzuaren ardura bere gain hartzea erabaki dau Otxan- dioko Udalak. Orain arte zerbitzu hori guraso elkartek hartu izan dau bere gain, baina Udalari ardu- ra hori hartzeko eskaera egin deu- tsie. Zerbitzu hori Ludotekagaz batera kudeatuko dau Udalak. Udalekuak uztailearen lehe- nengo hamabostaldian antola- tzen ditue herrian, jaien aurretik. Goizeko 10:00etatik 13:00etara hainbat ekintza prestatzen ditue eskolan oporrak hartu ditueen ume eta gazteentzat. Irteeraren bat be egiten dabela azaldu deus- kue. Begiraleak herriko gazteak izaten dira. ■ J. G.

ELORRIO

Zortzi hautagai ditue frontoia estaltzeko proiekturako

Aukeratutako zortzi proposamenak Iturri kultur etxean ikusgai ipini ditue

Plazako frontoia estali eta barruan sortzen den espazioa askotariko ekitaldiak hartzeko egokitu gura dau Udalak. Horretarako, ideia lehiaketa deitu eben, eta, epea amaituta, 34 proiektu dira jaso ditueenak. Aukeraketa baten ondoren, zortzi proposa-

menekin geratu dira. Proposamen horreek Iturri kultur etxean ikusgai dagoz, asteon hasi eta urriaren 5era arte.

Erakusketa dagoen artean, gura dauenak maketa bozkatzeko aukera edukiko dau. Herritarren eritzia kontuan hartuko dabe

azken erabakia hartu orduan.

“Itxaroten genduen baino proiektu gehiago jaso doguz, kalitate onekoak eta denetarikoak. Kuriositate moduan, bik bakarrik aurreikusi dabe plazako zuhaitzak moztea”, Niko Moreno alkatearen arabera. ■ J.D.



Jenteak gustukuen dauen proposamena bozkatzeko aukera izango dau. A.A.

ABADIÑO

AHTko lanek mendiolarrei sortutako arazoak kezkagai

Aitziber Irigoras Durangoko alkateagaz batzeko asmoa daukala azaldu dau Jose Luis Navarrok

Abiadura Handiko Trena eraikitzeke lanek Mendiola auzoan sortzen daben zarataren kexa Udaleria helarazo eban Aritz Basauri zinegotziak, uztaileko udalbatzarrean. Udalak zer neurri hartu zeikezen aztertuko ebala agindu eban Navarro alkateak orduan.

Horretara, trena eraikitzeke obretan –auzotarrek salatzen daben moduan– gaez be lanean jarduten daben egiaztatzen izan dira herriko udaltzainak, eta Mendiola auzotarrak kaltetzen ditueen zaratak Durangon eraikitzen dabilzen tunelean sortzen direla nabarmendu dau Jose Luis Navarro alkateak. Horregaitik, gaia eztabaidatzeko eta “legeak zehazten dituen zarata-mugak errespetatu daiezen zer neurri hartu erabakitzeke”, Durangoko Aitziber Irigoras alkateagaz batzarra egin-

go dauela aurreratu dau talde independenteko buruak.

Udalaz gaindiko proiektua izan arren, Abiadura Handiko Trena eraikitzeke lanetan be Udalak zehazten dituen arauak bete behar ditueela dino alkateak. Batzar horren ondoren, zarataren neurketak egingo ditueela baina “arazoaren konponbidea gaez lanik ez egitea” litzakeela dino. ■ I.E.

“Udalaz gaindiko proiektua den arren, Udalaren arauak errespetatu behar ditue”

“Mendiolarrek salatutako zaratak AHTaren Durangoko tartean sortutakoak dira”

ATXONDO

Komunikazinarako baliabide barria, webgune barria

Herritarren intereseko izan leitekeen Udaleko eguneroko informazioa (udalbatzarretako gai-ordenak, aktak, argazkiak, herriaren biztanleriaren bilakaera jasotzen dauen taula, etab.) herritar guztien eskura ipintzeaz gainera, herriko elkarteek eta taldeek euren deialdien barri emon ahal izateko zabaldu dabe www.atxondo.net webgunea. ‘Agenda’ izeneko atala, esaterako, herriko mugimendu eta ekimen guztiek isla izan daieen, elkarteek eurek kudeatzeko aukera emongo dabela azaldu dau Cobos alkateak.

Elaia IT taldeak osatu dauen gunea, “ahalik eta funtzionalen izan daieen” diseinatu dabela be azaldu dau alkateak. Erabili ahal gunea hobetzeko nondik jo leitekeen be aurreratu dabe aurkezpenean; turismoari begirako atal bat sortzea eta tramiteak egin ahal izateko baliabideak eskaintzea, esaterako. ■ I.E.

ATXONDO

Nafarroako ordezkariak jantzi eben Axpen irabazle txapela

Euskal Herriko Artzain-txakur Txapelketan lehenengo sailkatzeagaitik (303 puntugaz) irabazle txapela eta Atxondo-ko Udalak eskainitako kopa jaso zituen, domekan, Nafarroako Aresotik etorritako Alustiza artzainak eta Txiki bere txakurrak.

Agazko irabazle izan ziren Orozkoko Enrike Mendigurenek eta Riki txakurrak, barriz, bigarren egin eben domekan Axpeko zelaietan jokatu-tako Euskal Herriko Txapelketan. Bestalde, Abadiño-ko Carlos Ardanza eta Jose Urien artzainek hirugarren eta seigarren postua lortu eben, hurrenez hurren.



K.A.

ABADIÑO


Bere burua hil dau gizon batek

Bere buruaz beste egin dau gizon batek, asteon, Abadiño. Zelaieta auzoko Aingeruko Guardan aurkitu eben gorpua, joan zen eguazten goizean. Abisua emonez herritar batek deitu eban Ertzaintzara, 07:00etan, jakin eragin ebenez, eta segituan bertaratu ziren. Aingeruko Guarda ingurua hesitu egin eben.

DURANGO

20 urteko bidea gogoan hartuz

Lagun artean eta urte guztia-tako ibilbidea gogoratuz ospatu dau 20. urteurrena Berbaro elkarteak. Plateruenean egindako bazkarian elkartutako 180tik gora lagunek Ander Lipus antzerkigileak prestatutako ikuskizunaz disfrutatzeko aukera ezinhobeia izan eben. Horrezaz gainera, 1989an Berbaro elkarteak jaio zenetik gaur arte gordetako makina bat argazki-gaz sortutako ikus-entzunezkoa eskaini eben.



K.A.

DURANGALDEA

AHTaren Abadiño-Durango tarteko bigarren tunela egiten hasi dira

Hasi dira zulatzen Abadiño eta Durango bitarteko AHTaren ibilbideko bigarren tunela. Mendigaingo tunel horrek 1.066 metroko luzera eta 85 metro koadroko ebakidura izango dau. N-634 errepidearen ibilbidea paraleloan egingo dau joan-etorriko trenbidea izango dauen tunel horrek. Ekainean Eguzkitzako lurpeko bidea zulatzeari ekin eutsien; 723 metro ditu horrek.

Espainiako Gobernuaren EAEko Ordezkaritzak jakinarazto dauenez, ingurumenean lanek izango daben eragina murrizteko neurriak hartuko ditue. Horretara, lanak amaituta, sasi, belar eta bertako arbolak landatuko ditue. Mendigain inguruan dagoen hariztia ez dabela kaltetuko gaineratu dabe. Adif, Espainiako Trenbide Azpiegituren Administrazioaren enpresa publikoak, daroaz Abadiñotik Durangorako bideko lanak; 3.520 metroko luzera dauka, erdia lurrazpitik.

2009/2010

DURANGALDEKO ESPERIENTZIA INSTITUTUA



Ikasi eta gizartean era aktibo baten parte hartu nahi izanez gero, DEI-ak antolatu dituen ikastaroetan izena eman ahal dozu. **AUKERATU GOGOKOENAK.** Ez da beharrezkoa aurrez titulaziorik izatea.

ENVEJECIMIENTO EXITOSO Y COMPETENTE

ASTELEHENA: 9,30tatik -12,30tara.
Urriak 19tik Maiatzaren 24ra arte

SER MAYOR EN EL SIGLO XXI

ASTEAZKENA: 9,30tatik -12,30tara
Urriaren 21etik Maiatzaren 26ra arte

DURANGALDEKO ONDARE KULTURALA

OSTEGUNA: 9,30tatik - 12,30tara
Urriaren 15etik Maiatzaren 27ra arte

ARGIBIDE GEHIAGO
94 623 25 22
Durangaldeko Behargintza

+55

3
IKASTARO



**Durangaldeko
Behargintza**
Edukerako gurearen Agentzia
Agencia Cultural de Durango



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango




DURANGO
Udala - Ayuntamiento



EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak

Adatz
• ileapaindegia •



- Irudi aldaketa
- Ilerako tratamenduak
- Fotodepilazioa

Zubiaurre, 4 behea • IURRETA • Tel.: 94 420 08 28

NUKLEO
ileapaindegia



myspace.com/pelukerlanukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • ELORRIO • Tel.: 94 658 29 96



- Virginia Ansorena
- Estetika zentroa dauka Durango

Zaindu azala udazkenean

Uda pasatuta, azalean eraginik nabaritu leiteke?

Bai. Eguzkitan denpora gehiegi egonez gero, azala distira barik edo zimurtuta egon leiteke. Horregaitik, udazkena sasoi ona da azalaren gaztetasuna berreskuratzen saiatzeko.

Zer tratamendu jarraitu behar da helburu hori lortzeko?

Tratamendu barriak dagoz gaur egun, arriskurik barik eta denpora gitxian hobekuntza nabarmenak ekartzen ditueenak. Prezio merkea daukie, gainera. Peeling eta IPL laserraren arteko konbinazioan oinarritzen dira tratamendu horiek. Normalean, lehenengo saiotik ikusten dira aurrerapenak.

Pertsona guztiak, baina, ez gara berdinak.

Ez, eta horregaitik, bakotxari tratamendu berezia egokitu behar jako. Lehenengo eta behin, azterketa edo diagnostikoa egiten dogu, eta gero erabakitzen dogu zelakoa izango den. Informazioa emateko prest gagoz, baita etxean zaintzeko behar dena azaltzeko be.

Pilar Ruiz
• ileapaindegia •



SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96

M^a JESUS LUQUE
• ileapaindegi unixesa •



Kurutziaga 9 behea
94 681 43 89
48200 Durango

Estetika Zentroak

Parafarmazia • Dietetika

Amara



- Drenatze linfatikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1. zk. behea • Durango • 94 681 81 96

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA beroa eta epela
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA
- MAKILAJEA
- MANIKURA • PEDIKURA
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER)

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Virginia Ansorena
• estetika •



- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ªC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 • Mbl.: 665 716 017

Ana Camarero
• apaindegia •

LASER • FOTODEPILAZIO • MEDIKO-ESTETIKOA

25. HILERO
• Aurpegi tratamendua
• Gorputz tratamendua
• Hainbat produktutako zerbitzu

ZOZKETA urteurrena

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mesoterapia birtuala

Golenkate 16-1. esk. • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

FOTODEPILAZIOA



- Laser diodoa (azal beltzerano)
- Alejandrita (ile argia)
- Neodimio Yag
- Argi pulsatu

zure azalaren launtasuna gozatu

DURANGO • Erredu kalea, 1 • Tel.: 94 621 39 29
GERNIKA • BARAKALDO • www.fotodepilaser.com

BERBAZ >

“Enpresak ezin nau beste baldintza batzuk negoziatzeko trukean erabili”

Rothenbergerren kaleratutako beharginak enpresak berriro hartzea eskatzeko kanpaldia abiatu dau



Iban Gorriti

Jon Aitor Ibarzola •

■ Rothenberger enpresak kaleratutako behargina (LAB)

■ 48 urte

Astebete daroa enpresaren kanpoko aldean akanpata Jon Aitor Ibarzolak. Rothenbergerrek Abadiñon daukan lantegian beharrean hamabi urte emon eta gero, joan zen uztailean kaleratze-gutuna jaso eban, beste lau lankidegaz batera. Jon Aitorrek ez dau kalte-ordainik gura. Lan egitea da eskatzen dauena.

Zelan gertatu zen kaleratzea?
Joan zen uztailaren 22an, Rothenbergerrek Gasteizen daukan lantegiko lagun bat eta Abadiñon daukan beste lantegiko lau behargin kaleratu ginduezen. Opor aurreko egunetan egindako bidebako kaleratzeak izan ziren. Beste langileek sinatu egin eben, baina nik ez. Orain astebete enpresari berriro hartzea eskatzeko kanpin denda jarri neban enpresa aurrean.

Zer eskatzen dozu?
Lan egitea baino ez dot eskatzen. Enpresak berriro hartzea besterik ez dodanez gura, ez dot dirurik onartu.

Noiztik zabilz enpresan lanean?
Aldi baterako laneko enpresa bitartez 10 urte egin nituen. Eta beste urte bi eta erdi fijo moduan.

Kaleratzea zelan baloratzen dozue?
Enpresak produzitzen jarraitzen dau. Gai horren inguruan ez dabe ezelako azalpenik emoten. Enpresa barruan ez dot sekula arazorik izan. Nire lana beti bete dot. Afiliazino sindikalarengaitik izan leiteken be pentsatzen hasita gagoz. Ez dogu beste azalpenik aurkitzen.

Astebete honetan aurrerapausorik emon dozue?
Komiteak adostasunera heldu gura dauen arren, enpresak bereari eusten deitso. Zuzendaritzak ni berriro hartzeko beste baldintza batzuk jartzen ditu. Ezin nabe trukeko erabili. Kalte-ordaina jaso eta enpresatik joateko prest dagoen langile bat dago, eta zuzendaritzak ni bere lekuan hartzea ez dau onartzen. Bes-

te baldintza batzuk be jarri gura ditue.

Komiteak beste proposamen bat egin deitso enpresari.
Enpresaren proposamenaren aurrean langileek asanbladan onartutako beste proposamen bat ez dau onartzen enpresak. Eurek aurkeztutakoari baietza edo ezetza emoteko aukera baino ez deuskue emon gura.

Zer da langileek proposamen horretan eskatutakoa?
Badagoz onartu leitekezen gauza batzuk, baina dena ez. Enpresa hitzarmena izoztea onartu geinke. Sei hilabeteko erregulazino espediente egi-terakoan ez dabela inor kaleratuko dinoe. Langileok dingu, sei hilabeteko epe horren ondoren, hurrengo urtean kaleratzerik ez daitela egon. Hori be ez dabe onartu gura.

Indartsu jarraitzen dozu akanpatazen?
Indartsu jarraitzen dot eta arazoa konpondu ezean gose greba egitea pentsatzen nabil. Sindikatuak asko babestu nau.

Egoera honetan, gainera, lankide eta lagun guztiek babes handia emon deuste.

Lankideek asteroko lanuzteekin jarraitzeko asmoa daukie.
Bai. Eguaztenetan txanda bakotxean ordu biko lanuzteak egiten dihardue. Atzo Gasteizko lantegiko behargin batzuk be bisita egin eusten. Sarritan etortzen dira lankideak eta asko eskertzen deutset hori. Herriko lagunak be etortzen jataz.

Jateko orduan be lankideen konpainia daukazu.
Bazkaltzeko orduan ogitarte-koak tailerrean jan beharrean, hementxe, neugaz, jan zituen eguaztenean.

Urrian izango da epaiketa.
Datorren hilean, urriaren 22an, epaiketa izango da, eta kaleratze nulotzat jo daien eskatuko dogu. Halan be, enpresaren zuzendaritzagaz adostasunera helduz gero, bertan behera geldituko litzateke auzia. Ikusteko dago zertan geldituko den. ■ J. Guenetxea

“Arazoa konpondu ezean, gose greba egitea pentsatzen nabil”

“Enpresak bere proposamenari bai ala ez erantzutea baino ez dau gura”

“Joateko prest dagoen lankide baten lekuan sartu neike lanean”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

DEIk urrian hasiko den ikastaro sorta barria prestatu dau

Durungaldeko Behargintzak, Mankomunitateak eta Durangoko Udalak bultzatutako ekimena da

Urtarrilean sortutako Durungaldeko Esperientzia Institutuaren (DEI) eskutik —ikasteko eta gizartearen modu aktiboan parte hartu gura daben Durungaldeko 55 urtetik gorako pertsonen zuzendutako ekimena— hiru ikastaro barri eskainiko ditue, urrian, Durungaldeko Behargintzan: *Envejecimiento exitoso y competente*, *Ser mayor en el siglo XXI* eta *Durungaldeko Ondare Kulturala*. Urriaren 2a bitartean emon leiteke izena, halan be, ikastaroen gaineko informazioa emoteko batzarra irailaren 30ean izango da, 11:00etan, Behargintzan bertan (Laubideta 6an, Durango).

Ikastaroen aurkezpena irailaren 30ean egingo dabe Durungaldeko Behargintzan, goizeko 11:00etan

Mugikortasun plan barriak eskatu ditu UGT-Euskadik

UGT-Euskadi sindikatuak beharginekin kontsentsuatuutako mugikortasun plan alternatiboak eskatu ditu lantokietara egin beharreko joan-etorrietarako. Mugikortasun Jasangarriako Europako Asteagaz bat eginda eskatu deutsee enpresei eta Administrazioari, lantokira egindako eguneroko joan-etorriekin gertatzen diren gas kutsagarrien isur-

Esperientzia institutuaren arduradunek jakitera emon dabeenez, “pertsona horreek formatzeaz gainera, euren esperientzia aprobetxatu” gura dabe ekimenaren bitartez, eta “gizartearen parte hartzeraz bultzatu”. Oraingo honetan, gainera, Urkiola Landa Garapenerako Elkartek be agertu dau —horren ekintza arloagaz lotutako gaia aztertuz— parte hartzeko interesa. Horretara, DEIk eskaintako sinergiak aprobetxatuta, *Durungaldeko Ondare Kulturala* ikastaroa emotea lotu dabe.

Interesgarriak izan leitekezen alorretan hezi eta esperientziak elkartrukatzeko elkargune izan gura dau DEIk: Durungaldeko Mankomunitateak eta Durangoko Udalak 55 urtetik gorakoen kolektibo horregaz “lanildo barria zabaltzeko premia” ikusita sortu zen. “Formatzeko aukera emoten deuten lan ildoak, ikaskuntza bizi osoko prozesua dela ulertuta”, argitu dabe. ■ A. B.

keta eta *in itinere* istripuak murriztea helburu hartuta.

UGT-Euskadiko Lan Osasun eta Ingurumen Idazkari Esperanza Moralesen berbatan, “hiri mugikortasunaz hausnartzea” gura dabe. 2008an, EAEn izandako hildakodun lan istripuetatik %25 izan ei ziren *in itinere*. ■ A. B.

2008an, EAEn izan ziren hildakodun lan istripuetatik %25 izan ziren ‘in itinere’

> DURANGO



Esperientziak trukatzeko aukera izango dabe.

Kalitatea hartu dabe berbagai Maristetan

Esperientziak elkartrukatzeko Kalitateari Buruzko Nazinoarteko Tailerra antolatu dabe egunotan

Kalitateari Buruzko Nazinoarteko Tailerra antolatu dau Maristak ikastetxeak, Alemaniako BBS-Rotenburg eta Finlandiako Ammattiopisto Valkeakisky zentroko arduradunak gonbidatuz. Nazinoarteko jarduerak, kalitatea gelan eta pertsonen kudeaketa izan zitueen berbagai atzo. Gaur ikasteko arazoak dituen ikasleendako laguntza sistemak aztertuko ditue; baita irakasle-goagaz elkarriketaz —norbanakoaren garapena aztertu, helburuak finkatu eta lana ebaluatze— lan tresna legez be. Jardunaldiak 09:00etan hasi ditue.

Ikastetxe bakotxaren esperientzia, ikuspegia eta helburuak azaldu eta elkartrukatzea ditu helburu ekimenak: “Partekatzea eta bata bestearengandik ikastea”.

“Partekatzea eta elkarrengandik ikastea” ditu helburu ekimenak

Maristek gogoratu dabe Europar erreferentzia diren zentroek parte hartu dabela, EFQM Europako Bikaintasun ereduan oinarritutako kudeaketa eredua garatzen dabenak. Ekimenak jarraipena izateagura dabe antolatzaileek. ■ A. B.

kolaborazinoa



Mikel Etxebarria
ELA sindikatua

M y Z-ko kronika beltza

Mendiguren y Zarraua enpresak bi zentro ditu Durungaldean, Berrizen eta Abadiñon. Zuzendaritzaren kudeaketa negargarriaren ondorioz, galerak izan ditu, eta, konkurtsoan dago otsailetik. Errua enpresarena, eta ondorioak langilegoarengan kaleratze bidez. Horraino, betiko istorioa, baina M y Z-n gehiago dago. Enpresak apartheid eredu hartuz, Berrizen ELAko jendea eta Abadiñon LABekoa “akatzea” erabaki zuen; inkomodoak zirenen exterminio laborala. Nahiz eta Merkantileko Epailea izan zen uztailan sinadura jarri zuena, Berrizen eta Abadiñon orotara 48 langile kaleratzeko, hemen aktore ugari hartu dute parte, hots: Lan Ikuskaritzak, kaleratzeen informe positiboa eginez; Administrazio Konkurtzalak, kaleratze kopurua onartuz; eta UGT eta CCOO. Bi sindikatu espainolek lehendabizi konfiantzazko Administrazio Konkurtzala izendatu zuten (UGTko ekonomista, zehazki, zeinak -nahiz eta enpresa ustez egoera ekonomiko larrian egon- 300.000 euro eskuratuko dituen enpresatik, epaileak horrela erabaki duelako) eta gero antzerkia eszenifikatu dute.

Zertan datza antzerkia? Ustez kaleratzeen aurka egon eta gero ezer ez egin, ustez mugagabeko greba egiteko babes emon, eta gero atzetik beraien jendeari enpresaren diskurtsoa saldu (“greba = enpresa itxi”) greba aukerak neutralizatzeko, kaleratze kolektibo hauen aurkako kontrainformarik ez egin (ELAk eta LABek bakarrik egin dute, jazarpen sindikala salatuz).... eta honi gehitu behar enpresarekin “telefono gorria” duen pertsonaia iluna oso. Kaleratzeak ofizialki langilegoa inoiz babestuko ez duten estamentu ofizialek baimendu dute, baina niretzat zerbait egin zezaketen eta beraien interesak arriskuan ez zeudelako ezer egin edo kontra jokatu duten aktoreek ere erru berbera edo larriagoa dute. Urtebetean jada bi daramatzazu UGTko metaleko ardura-dun, hurrengo egitera ausartuko zara?

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

EXCAVACIONES JON

MITA GUZTIETAKO INDUSTRIAK
HONAKOAK

Jon Garitagoitia Gallastegui

INDUSTRIAL - BERRIKUNTZA - BERRIKUNTZA - BERRIKUNTZA

KULTURA[>]

Argazkia: Kepa Aginako

DANTZA > EMANALDIA

Bizitzaren zikloari buruz, jaioberriei

Jaioberriei, 0 eta 3 urte bitarteko umeei zuzenduriko dantza garaikidea ekarri du orain hamar urte Granadan sortutako Da Te Danza konpainiak San Agustin kulturgunera.

Hain zuzen ere, Italiako Teatro Testoni Ragazzi taldeagaz elkarlanean sorturiko *Tondo Redondo* ikuskizuna da Granadako taldeak Durangaldean joan zen domekan erakutsi zuena.

Ordu erdiko koreografia da ikuskizuna osatzen duen atal nagusia, eta emanaldian erabilitako objektu eta elementuak haurren esku uzten dituzte, ikuskizunean baliatutako materialekin esperimentatu dezaten; gertuko sentitu ditzaten oholtzakoak.

Granadako taldeak umeei zuzendurik ekoizten duen bigarren lana da San Agustinen izan dugun *Tondo Redondo*.

San Agustin kulturgunean iaz egin zuten lehenengo aldiz hain publiko berezituari zuzenduriko ikuskizun bat; ikasturte hasieran izan zen orduan ere.

“Begiekin entzuten duen ikuslegoarentzako” pentsatutakoa omen da domekan eskaini zutena egileek diotenez: objektu boro-bilduekin, gorputz mugimendu leun eta geldoekin eta musikaren bitartez, bizitzaren zikloa kontatu zuten bi dantzari emanaldian. Dantza eta antzerkia uztartzeko modu berezia eta ikuslego bereziarentzako prestaketa. ■ I.E.

12 Gatiburen DVD grabaketa

Durango Plateruena antzokia aukeratu du Gatibu talde gernikarrak DVDrako irudiak jasotzeko. Bihar, irailaren 26an duten kontzertua grabatuko dute.



13

Ekaitz Elgezua zuzendaria

Abadiñoko Banarte taldeko kidea eta Madrilén ikus-entzunezko ekoizpen ikaslea da Ekaitz Elgezua. ‘El prestamo’ film laburra zuzendu du.

PROGRAMAZIOA > AURKEZPENA

Berrizko Kultur Etxea urtea amaitu arte beteko dutenak

Iraila, urria, azaroa eta abendurako osatu duten kultur programazioaren berri izan dugu. Herriko musikari, antzezle eta bertsolarien emanaldiak izango dira, besteak beste, datozen asteetan Berrizko Kultur Etxean

Txintxaun Kolektiboak umeentzako sortutako *Anita ilezikin* lana urriaren 30ean; Miren Amuriza bertsolariak Nikaraguara egindako

bidaiari buruzko berbaldia azaroaren 6an; Etxe musikariaren disko berriaren aurkezpena azaroaren 21ean; eta Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolarien *Mende baten*

aldarriak XX.ean jarriak saioa abenduaren 3an. Horiek dira datozen asteetan Berrizko Kultur Etxean izango diren etako batzuk.

Urte amaierara arte Berrizko kultur etxean eskaintzeko prestatu duten egitaraua osatzen dutenak 20 ikuskizun dira. Egutegian edo agendan apuntatzeko lehenengoa urriaren 2koa da, tren geltoki ondoko aretoan: Katraskacia taldearen umeentzako *Microglophone* antzezlan, 4 urtetik aurrerako haurrei zuzenduta.

Haur zein heldu

Haurrentzako ez ezik, helduen pentsatuta sortutako atzerkia ere izango da Berrizko Kultur Etxean: Bikoteatroren *Euskarazetamol* antzezlan, azaroaren 27an; Las Grotesques taldearen *En ocasiones veo armarios* ikuskizun dibertigarria, abenduaren 11n; Txalo taldearen *Ni naiz Hector, ni bakarrik*, edo Vaiven-en *El club de las mujeres invisibles*.

Nabamentzekoa da abenduaren 4an kontzertua eskainiko duen Korrontzi taldearen emanaldia ere: euskal folk doinu dantzagari eta alaiak ekarriko dituzte mungiarrek Berrizera. ■ I.E.



Urriaren 2an du emanaldia Katraskacia taldeak.

GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola
San Agustingo programatzailea

Beste kultura batzuk

Zuetariko askorentzat akaso ez dut ezer berrik esango, niretzat, ordea, esperientzia guztiz berria izan da uda honetakoa. Orain arte inoiz ez naiz antzerkia ikustera atzerrira joan, eta hala, aurtan, Markeliñe zornotzarra laguntzen Londoneko Watch This Space jaialdian egon naiz, *Carbon Club* lana lau egunez antzetzut baitute National Theatre antolatutako kale-antzerki topaketan.

Bertaratu ahala jasotako harrera atseginak eta National Theatre berak ere izugarri harritu ninduten: antzetzeko hiru agertoki, langileentzat eta taldeentzat jatetxea, kafetegia, wifia, kamerino prestatuak, garbategia, eszenografia tailerra... eta abar baitzeuden, eta, hau gutxi bailitzan, azkeneko solairuan itzelezko terrazadun beste kafetegi bat, eta ikuskizuna amaitzerakoan bertan ikusleekin solasean aritzeko ohitura sana ere bai!

Festibala Thames ibaiaren erriberako txoko batean egiten da, 500 bat lagunentzako tokia dago, eta saio bakoitza ikusteko 10 libera (13 euro) ordaindu beharra dago, nahiz eta kalean izan.

Gehien harritu ninduen, baina, aretoko ikuskizun bat izan zen: aldezturik sarrera erosi, antzokiko atera heldu, eta txartela hartzeko inor ere ez? Eta, gainera, hala da! Ez dago atezainik, eserlekuak topatzeko laguntzaileak besterik ez daude. Antzezlanaren etenaldian jende guztia jaiki eta kalera, txirrina jotzean denak barrura berriro, eta bien bitartean inork ez du arretarik jartzen sarrearekin edo barik sartu zaren, izan ere, inortxo ere ez baita ordaindu barik sartzen (gurean balitz!); esku-liburuak, berriz, oparitu ordez 2 liberaren truke saltzen dira.

Beste gauza mordo bat kontatuko nizueke, baina toki barik gelditzen ari naiz, amaitzeko esan dezadan erabateko kultura esperientzia izan dela niretzat, eta Markeliñek primerako lana egin zuela; London Paper egunkariako kritikak esaten zuenarekin amaituko dut: "Hain gutxi ulertzea sekula ez da izan hain dibertigarria".

ZINEMA > JAIALDIA

Arkaitz Basterraren 'Life and film' Zinemiran

Donostiako Zinemaldiko Zinemira sail berrian aurkeztu du zornotzarrak 'Life and film' lana

Astelehen, martitzen eta eguazteneko emanaldietan estreinatu du Arkaitz Basterra zuzendariak (Zornotza, 1974) bere azken lana Donostian. Euskal zinema ekoizpenak aurkezteko sortutako sail berrian, Zinemira izenekoan, eskaini dute Basterrak zuzenduriko Vojtech Jasny zuzendari txekiarren bizitzari eta zinemari buruzko "dokumental poetikoa".

Aurtan estreinatu dute
Euskal zinemari
zuzenduriko saila

New Yorkeko zinema eskolan ikasten zegoela ezagutu zuen zornotzarrak Jasny irakaslea, eta irakaslearen zinemagintza eta izaera ardatz dituen filma osatu du orain. "Arkaitz da film hau egin zezakeen bakarra, oso harreman intimoa garatu dugu", nabarmendu du Donostiako aurkezpenean

83 urteko zinemagile txekiarrek. Hirurogeiko hamarkadan Europako zinegile ospetsuenetakoa izan ondoren, New Yorkeko apartamentu txiki batean bizi da gaur egun Jasny; iragana, etorkizuna, eta oraina biltzen dira filman. Eta Jasnyrentzat bizitza eta zinema bereizi ezin diren bi kontzeptu direnez, berak sortutako filmeen erreferentziak ere asko biltzen dira Basterraren lanean.

Euskal zinemagintzak orain arte Donostiako Zinemaldian izan duen lekua egun bakarreko izan da, baina sail oso bat sortu dute aurtan lehenengoz. Bederatzi film erakutsi dituzte, eta horietariko sei estreinakoz eman dituzte (tartean, Basterrarena). ■ I.E.

New Yorkeko zinema
eskolan ezagutu zuten
elkar zuzendari biek

MUSIKA > KONTZERTUA

Platerueneko biharko kontzertuko irudiekin DVDa osatuko du Gatibuk

Irailaren 26ko Platerueneko kontzertuko zuzeneko soinu eta irudiak jasoko dituzte



Orain zazpi urte, 2002an, *Zorame-na* diskoan jasotako *Musturrek sartunde* moduko kantekin egin zen entzutetsu Gatibu taldearen lana, eta ordutik hiru urtetik hiru urtera disko berria kaleratu izan dute gernikarrek: 2005ean *Infernu* izeneko plazaratu zuten, eta 2008an argitaratutako *Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik* diskoa da taldearen berriena.

Gaztea Sarietako Kanta onenaren saria (*Bang-bang txiki-txiki bang-bang* abestiagaz) eta disko onenaren saria (iaz kaleratutako diskoagaz) irabazi ditu Gatibuk. Azken disko horretako kantak jo eta DVDa osatzeko bilduko dituzte, beraz, bihar. ■ I.E.

'Laino guztien gainetik,
sasi guztien azpitik'
diskoa aurkeztuko dute

2002tik orain arte
hiru disko argitaratu
ditu Gatibu taldeak



Iurretako Udalak jai
zoriontsuak opa deutsuez
Ondo pasa!



IURRETAKO jaiak

IRAILAK 25, BARIKUA

- **19:30ean** Perkusino tailerra adin guztietakoentzat, Askondon.
- **20:00etan** Frontenis maratoi herrikoa.
- **21:00etan** Folklore agerraldia, Askondon: Mikel Deuna dantza taldea (Iurreta) + Magüaré dantza taldea (Kolonbia). Ondoren, kalejira Tamsa talde afroarabiarrek alaituta.
- **23:00etan** Asier Bilbao eta Disko festa, Askondon.

IRAILAK 26, ZAPATUA

- **12:00etan** Herri-kirolak, Amilburun: harri-jasotzailea eta iparraldeko jokoak (parte hartzeko aukeragaz).
- **13:15ean** Durango Rally Klasikoa.
- **17:00etan** Eskolarteko MB-ko Kriteriuma, Arriandin.
- **18:30ean** Asto probak (gonbidapenekin), Olaburu frontoian.
- **19:00etan** Umeendako erromeria Plis Plas taldeagaz, Amilburun.
- **21:30ean** Mariatxiak, Askondon.
- **22:30ean** Rock kontzertua: Delirium Tren Ez + Silikosos + Hilbete + Disorders, Aita San Migel plazan.

IRAILAK 27, DOMEKA

Umeen Eguna

- **12:30ean** Gaiteros del Elciego & Friends, Aita San Migel plazan.
- **16:30ean** Umeen parkea Aita San Migel plazan (euria bada, Maiztegiko frontoian). Amaitu ondoren, txokolatada.
- **18:30ean** Asto probak (gonbidapenekin), Olaburu frontoian.
- **19:00etan** Detraka-Zirkus Mirkus pailazoak, Dantzari plazan.
- **20:30ean** Los Barbis, Askondon.

IRAILAK 28, ASTELEHENA

San Migel bezpera

- **12:00etan** Txapligoak Montoitik, eta gero, kalejira dultzainero eta trikitilariekin.
- **12:15etan** 'Hipo eta Tomas' umeendako ikuskizuna, Amilburu plazan (euria bada, Ibarretxe kultur etxean).
- **14:00etan** Jubilatuen bazkaria, Olaburun. Iñaki Uribesalgo soinu-joleagaz erromeria.

- **14:30ean** Gazte bazkaria, Aita San Migel plazan.
- **18:00etan** Ohiturazko doniel-hatxa altxatzea. Dantzarien azken entsegua.
- **22:00etan** Erromeria Luhartz taldeagaz, Aita San Migel plazan.

IRAILAK 29, MARTITZENA

San Migel Eguna

- **10:00etan** Dantzari, agintari eta herritarren kalejira, Montoitik Aita San Migel plazaraino.
- **11:00etan** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza.
- **12:30ean** Bertsolariak: Unai Iturriaga, Gorka Lazkano eta Eneko Abasolo "Abarkas", Aita San Migel plazan.
- **16:30ean** Iurretako Kofradien Arteko II. Herri-kirol Lehia, Aita San Migel plazan. Ondoren, Dantzari Dantza eta neskek egindako Soka Dantza. Jarraian, erromeri-poteoa Oxabi taldeagaz.

IRAILAK 30, EGUAZTENA

- **19:00ean** Hilan aldeko meza.

URRIAK 1, EGUENA

- **16:45etan** Txikiendako lehenengo kontaktua ponyekin, Aita San Migel plazan (euria bada, Maiztegiko frontoian).
- **19:00etan** 'Cruzadas cotidianas' antzezlan, Ibarretxe kultur etxean.

URRIAK 2, BARIKUA

- **16:00etan** Pin-pon txapelketa, Aita San Migel plazan.
- **17:00etan** Patxin eta Potxin pailazoak, Amilburu plazan.
- **18:00etan** I.E.B. emakumeen kadete taldearen aurkezpena, Ibarretxe kultur etxean.
- **18:45etan** 'Azur & Asmar' pelikula, Ibarretxe kultur etxean.
- **19:00etan** Sugarri fanfarrea, herriko kaleetan zehar.
- **20:30ean** Tortilla Txapelketa (21:30ean aurkeztu behar da), Aita San Migel plazan.
- **22:00etan** Probak: gizonak, motordun ibilgailuak eta astoa.
- **23:30ean** Erromeria Lahiotz taldeagaz, Aita San Migel plazan.

URRIAK 3, ZAPATUA

Mozorro Eguna: Tribu Urbanoak

- **12:00etan** Kalejira eta poteoa.
- **14:30ean** Herri-bazkaria, Aita San Migel plazan (mozorrotuta joatea derrigorra da).
- **17:00etan** IX. Bizikleta Festa, Olaburuko errotondan.
- **18:00etan** Break dance ikuskizuna, Aita San Migel plazan.
- **22:00etan** Bertsolariak: Andoni Egaña, Igor Elortza, Amets Arzallus, Maialen Arzallus, Jon Maia eta Miren Amuriza, Olaburu frontoian. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.
- **24:00etan** Erromeria Luhartz taldeagaz, Aita San Migel plazan.

URRIAK 4, DOMEKA

Errosario Eguna

- **10:00etatik 15:00etara** XI. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, Andaparapen.
- **10:00etan** Dantzari, agintari eta herritarren kalejira, Montoitik Aita San Migel plazaraino.
- **11:00etan** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza.
- **12:30ean** Igel Txapelketa, Aita San Migel plazan.
- **12:30ean** Entsalada Txapelketan izena emotea (bakotzak bere osagai eta tresneriak eroan behar ditu), Aita San Migel plazan. Entsaladak 14:30ean aurkeztu behar dira.
- **13:00ean** 'Pablo Berasaluze VIII' Uda Binakako Eskupilota Txapelketako finalak (benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak).
- **17:00etan** Pilota partidu profesionalak: Berasaluze VIII-Ibai Zabala // Olaizola II-Aprreiz (sarrerak, frontoian eta ostalaritza etxeetan).
- **18:30ean** Dantza ikuskizuna: Galdakaoko Andra Mari (talde gonbidatua) eta Iurretako dantzariak (Gorulari eta Dantzari Dantza egingo dabe), Aita San Migel plazan. Ondoren, jaietako errifen zozketa.
- **20:30ean** Herri-afaria Kaixo taldeak alaituta, Aita San Migel plazan.
- **22:00etan** Jaien amaiera ohiturazko bertsoak abestuz, Aita San Migel plazan.



Betikoak
flexografía

- ofizinarako zigiluak
- fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41



ASIMAIR
COMPRESORES

Arriandiko industriagunea - UA14 - 13. orloa 5.pabilioia. 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 94 620 24 15 - 94 620 20 64 Faxa: 94 620 37 86 E-maila: asimair@telefonos.es



Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 88 62 - mallabiena@mallabiena.com



TOLDOS
LECE

Kataide industriagunea,
14.pabilioia (Musikola auzoa)
Tel.: 943 792 383
Telefaxa: 943 770 445
20500 ARRASATE

Mallabiena auzoa, 6
Telefaxa: 94 681 76 19
48215 IURRETA

Inork baino hobeto eguzkiari aurre egiten diogu

Txapligoekin batera dator jaia

Nobedadeak be badiren arren, ohiko ekitaldiek indarrez jarraituko dabe aurtengo Sanmigeletan

I railaren erdialdetik ekitaldiak martxan egon arren, hilaren 28an hasiko dira, berez, lurretako jaiak. Tradizinoak garrantzia handia hartzen dauen jaiak dira Sanmigelak, eta aurten be ohiturei eutsiko jake. Dena dela, edade eta gustu guztietakoentzako egitaraua prestatu dau Jai Batzordeak.

Neskak soka-dantzan egingo dabe 29an, arratsalde; sokara batzeko gonbita egingo deusie plazako hainbat mutili

Astelehenean, bezperan, Montoi inguruan batuko dira iurretarrak, eguerdiko 12:00etan. Txapligo hotsak iragarriko dau jaien hasiera, eta ondoren kalejiran joango dira herritarrak dultzaineroen laguntzagaz. Arratsaldeko 18:00etan, urtez urte jente asko erakartzen dauen ekitaldia izango da: Doniel-Hatxa jasotzea. Kanpai-hots eta txapligoen artean, dantzariak plaza erdian kokatuko dabe herritarren laguntzagaz. Jaiak amaitu arte mantenduko da bertan, eta plazako jaialdi guztiak bere bueltan ospatuko ditue. Doniel-Hatxa altxatu ondoren, dantzarien azken entsegu ikusteko aukera be izango dabe hurreratzen direnek.

Dantzari dantza San Migel egunez eta domekan eskainiko dabe plazan. Neskak be soka-dantzan ariko dira 29an, arratsalde; sokara batzeko gonbita botako deusie plazako hainbat mutili. Giro atsegina bermatuta dago egun handian.

Mozorro Eguna

Zapatua Mozorro Eguna izan ohi da lurretan, eta aurtengo zitarako 'Tribu urbanoak' gaia aukeratu dabe. Punkiak, heavyak, txikiteroak, diskotekeroak... denerik ikusiko dogu kaleetan zehar.

Herri-bazkarian elkartuko dira moztortuta dagozen herritarrak, eta arratsaldean Break-dance ikuskizunagaz disfruituko dabe. Akrobaziak egiten ikasteko aukera be izango ei dabe, gainera.

Mozorro Egunak bat egiten dau egun berean bertso saioagaz. Arrakasta handiko saioa da: frontoia goraino bete ohi da. Egaña, Elortza, Maia, Miren Amuriza eta Arzallus neba-arrebek kantatuko dabe Maite Berriozabalek gidatutako saioan.

Zapatua Mozorro Eguna izan ohi da lurretan, eta aurtengo zitarako 'Tribu urbanoak' gaia aukeratu dau Jai Batzordeak



I.Irazabal



I.Irazabal



J.F.

OKINDEGIA
ALBERDI
Mallabiena, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.
UAL, I INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango
Tel.: 94 681 21 23 • Faxa: 94 620 38 18 • email: oficina@amayaautoreparaciones.com • www.amayaautoreparaciones.com



Ondo pasa
San Migeletan!

Bixente Kapanaga, 5 • 48215 Iurreta • Tel: 94 622 00 10 • Faxa: 94 621 58 48

“Herri-kirola sustatuko dau Harria taldeak”

Talde sortu barriak herri-kirol arloan lan egingo dau



Eneko Abasolok, Andoitz Elorriagak, Jon Areitiok, Joserra Zabaletak eta Joseba Abanzabalegik Harria herri kirol taldea sortu dabe. Euren helburua

Sanmigeletan zein auzoetako jaietan herri-kirol arloko ekitaldiak antolatzea edo horretan laguntzea da. Ilusinoz ekin deustsie bide horri, eta gura dauenarendako elkarte zabalik dagoela

adierazi dabe. Oraindino ez daukie batzeko tokirik, baina pilotalekuan dagoen lokala itziko deuteela itxaroten dabe. Euren asmoak eta etorkizunerako planak kontatu deuskuez Harriako kideek.

Non dauka sorburua Harria herri kirol taldeak? Zergaitik sortu dozue?

Lehenago herri kirolen taldea Iurreta Kirol Taldearen barruan zegoen. Handik irten eta bere kabuz jardungo eban taldea sortzea hobe zela eritzi geuntsan, eta hortik sortu da Harria.

Zergaitik dinozue hobe zela IKTtik irtetea?

IKT hainbat taldek osatzen eben: pilota eta txirrindularitza arlokoak taldetik irtetea erabaki eben. Iurreta Herri-kirol Taldeak barruan jarraitu eban. Azken urteetan IKTk ez eban herri-kirol arloko diru-laguntzarik eskatzen. Handik irten eta diru-laguntza eskatuz geure bideari ekitea egokitzen jo genduen; IKTn futbolera bideratzen eben dirurik gehien.

Iurretako jaietan, auzoetan zein beharra dagoen tokian herri-kirol inguruko ekitaldiak antolatu eta sustatu gura ditue

Zer helburu dauka Harriak?

Iurretako jaietan, auzoetan zein beharra dagoen tokian herri-kirol inguruko ekitaldiak antolatzea eta sustatzea. Toki baktotxean zer ildoko herri-kirol ikuskizun gura daben jakinarazita, geu arduratuko ginake gestinoak egiteaz. Iurretan asto-probek tradizio handia daukie, eta leku askotan antolatzen ditue. Halan be, denez, tariko ekintzak prestatu geinkez:

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
IZARBE
Ondo pasatu San Migelak!
 Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldetako eta komuneko altzariak
 Bixente Kapanaga, 3 - 48215 Iurreta Tel.: 94 681 22 90 Faxa: 94 621 63 36 izarbek@izarbek.com

IK Iurreta kopistegia
INPRENTA DIGITALA
 Bidebarrieta, 1 behe (Korreos ondoan)
 48215 IURRETA
 Tel. 94 681 10 70
 planos@iurretakopi.com
 mac@iurretakopi.com

Parques y Jardines

Abadiano, S.A.
LORAZAINTZA • KIROL ZELAIK • HIDROEREITEA • GOLF ZELAIK
 Gaztañatza auzunea - 48215 IURRETA (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 37 93 / 94 681 26 33 / 94 621 55 80
 Faxe: 94 681 90 82
 parques@parquesjardines.euskalnet.net

EBANISTERIA - AROZTEGIA
ELAI
 Arriandi industrialdea, z/g
 Tel./Faxe: 94 620 07 69
 48215 IURRETA

aizkolariak gura ditueela, edo harri-jasotzaileak...

Sanmigeletan zer ekitaldi antolatuko dozue?

Alde batetik, kofradien arteko desafioan dagoen jokoak antolatuko doguz, lurretako Jai Batzordearen laguntzagaz; baita dema kurioso bat be: asto bat,

Sanmigeletan kofradien arteko jokoak eta astoaren, traktorearen eta zortzi lagun arteko desafioa antolatuko ditue

Igaz lehenengoz antolatu eben astoen eta gizonen arteko desafioa, harriagaz zeinek untze gehiago egin; ikusmina sortu eban

zortzi lagun eta traktore bat (motordun ibilgailua), harriagaz zeinek untze gehiago egin. Denak harri beragaz ibiliko dira, eta 20 minutu izango ditue lanerako.

Dema parekatua aurreikusten dozue?

Motordun ibilgailuagaz sekula ez dogu probarik egin. Ez dakigu buelta hartzeko zelan ibiliko den. Gu astoagaz lehiatuko gara. Harria herri kirol taldean egoteaz gainera, hortik aparte, asto-probetan be parte hartzen dogu

geure kontura. Halantxe ibiliko gara jaietan. Zelako lana egingo dogun? Ez da erraza aurreikustea. Gu astean hirutan bagabilz entrenatzen, eta ikusi egin behar.

Beraz, asto-probetan be ibiltzen zarie?

Bai, baina hori Harriatik aparteko afizinoa da. Taldea sortu barria denez eta eremu hori ezagutzen dogunez, ildo horretako ekitaldiak antolatzen doguz batez be. Baina bat da Harria taldea, eta bestea gure afizinoa. Etorkizunean eremuak handitzen saiatuko gara; beti be, eskakizunen arabera. Baina, bai, astiro-astiro gauza diferenteak egiten saiatuko gara. Oraindino ikasten gabilz.

Motordun ibilgailuaren, astoaren eta gizonen arteko desafioa kurioa da.

Herri-kiroletan ez da erraza berritzailea izatea, ia dena ikusita dago-eta. Gainera, bururatzea ez da nahikoa; gero ideia hori gauzatzeko jentea be topatu behar da. Halan be, saiatuko gara. Igaz astoen eta gizonen arteko desafioa antolatu genduen eta gerora auzoetara zabaldu da. Igaz gizonek irabazi eben, 48 untzagaz. Astoak 44 egin zituen.

“Herri-kiroletan ez da erraza berritzailea izatea; dena ikusita dago. Halan be, gauza berriak antolatzen saiatuko gara”

Olaizola II eta Berasaluze VIII aurrean

Goi mailako pilota partidua

Urriaren 4an berritan pilota partidu interesgarria antolatu dabe. Pablo Berasaluzek eta Ibai Zabalak Aimar Olaizolaren eta Alexis Apraizen kontra jokatuko dabe, 17:00etatik aurrera.

Berrizko bikoteak aurrelari trebea eta atzelari segurua izango ditu aurrez aurre. Udan zelan ibili diren kontuan hartuta, aurrelari bien arteko lehia ikusgarria izan daiteke. Sarrerak pilotalekuan bertan ez eze, herriko ostalaritza etxeetan be badagoz salgai.

Aurretik, 13:00etan, Pablo Berasaluze VIII. Udako

Binakako Eskupilota Txapelketako finalak jokatuko ditue, lau kategoriatan.

Bestalde, bihar eta etzi, 18:30ean, asto-probak antolatu ditue. Irabazleak 360 euro jasoko ditu. Gizonen, motordun ibilgailuaren eta astoaren arteko desafioa urriaren 2an, 22:00etan, egingo dabe. Azkenik, gaur 20:00etan da frontenis maratoni herrikoa.

Berasaluzek Ibai Zabala berriztarra izango dau atzelari eta goizuetarrak Alexis Apraiz



I. Gorriti

UNDARRI BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa.
Bidebarrieta, 5 - baxo
48215 IURRETA
94 681 78 08
www.undarribike.com
undarribike@undarribike.com

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52
Banatzailea:
Cruzcampo, Harbin, Kaliber, Guinness, Harbin, Peracera, Pirelli, Vinal, Alcantara

ALBERDI
PREFABRICADOS DE HORMIGON
Tel.: 94 620 11 34 - 94 621 70 20
Faxa: 94 620 15 69
Arriandi auzoa, 1 - 48215 IURRETA (Bizkaia)
E-mail:comercial@prefabricadosalberdi.com
www.prefabricadosalberdi.com

SERAPIO CALVO
eskaiolazko dekorazioak
• SABAI ERREGISTRAGARRIAK
• PLADUR SABAIK
• APALAK
Tailerra
Bidebarrieta, 9
Tel.: 94 681 15 12
IURRETA
Bizilekua
Bidebarrieta, 11 - 4c
Tel.: 94 681 24 68

LAGOI
S.L.
ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
Biltegia:
Arriandi auzoa z/g 4 Iurreta
Tel.: 94 620 33 22
Faxa: 94 621 58 74
Erakusketa:
Montebideo etor. 4 Durango
Tel.: 94 621 52 84
Faxa: 94 621 52 85
www.lagoi98.com

Delirium Tren Ez, SilikoS.O.S., Hilbete, Disorders

Durangaldeko lau musika talde



Durangaldeko punk, hardcore eta rock doinuen erakusleio izango da Iurretako plaza zapatuan. Besteak beste, Mañaria, Zaldibar, Durango, Iurreta eta Abadiñoko musikariek sortutako taldeen emanaldia izango da irailaren 26an, 22:30ean hasita, Iurretako Sanmigeletan. Delirium Tren Ez, SilikoS.O.S., Hilbete eta Disorders taldeek beteko dabe doinuz zapatu gaua.

Eskualdeko musikari bere bultzadaxoa emon deutso Iurretako Jai Batzordeak, inguruko herrietako musi-

karietaren euren kanta zuzenean eskaintzeko aukera eskainita.

Eskualdeko musikari gazteen rock doinuez gainera, bestelako erritmoetarako be badago Sanmigeletako egitarauan lekurik; gaur 19:30ean, esaterako, adin guztietakoentzako perkusino taletarra eta Asier Bilbaoren ikuskizuna zein 23:00etako disko festa antolatu ditue.

Erromerietan sortzen den dantzarako giroa gurago dabenendako, bestalde, Luhartz taldearen emanaldia be jasotzen dau 2009ko jaietako egitarauak: San Migel bezperan izango da.

Txikienak be jaietan

Umeei zuzenduriko egitaraua

Bihar, zapatuan, umeentzako apropos ekarritako jaietako ikuskizunen arteko lehenengoa izango da, 19:00etan, Amilburun: Plis Plas erromeria.

Domeka, irailaren 27a, da jaietako Umeen Eguna, eta umeen parkea plazan (euria bada, Maiztegiko frontoian) eta txokolatada izango dira, 16:30etik aurrera Iurretan.

San Migel bezperan, Hipo eta Tomas umeendako ikuskizuna izango da aukeran. Etxeko txikienentzako ekarriko ditue, bestalde, urriaren 1ean ponyak plazara: animalioekin kontaktua hartu ahal izan daien hurrek.

Urriaren 2an, 17:00etan, izango den Patxin eta Potxin pailazoen emanaldia izango da, amaitzeko, Amilburun.

Pailazoak eta zirkua
Detra-ka-Zirkus Mirkus taldeko pailazoek, barriz, umeen egunean bertan, bihar, 19:00etan hasiko dabe euren ikuskizunaren Sanmigeletako emanaldia Dantzari plazan.

Plis Plas, Detra-ka-Zirkus, Hipo eta Tomas, Patxin eta Potxin, eta askoz gehiago Iurretako San Migel jaietan, haurrentzako



URIEN liburutenda

opariak jolasak eskola eta bulego gaiak testu liburuak bus bonoak prentsa aldizkariak gozokiak fotokopiak fax zerbitzua telefono txartelak

BIXENTE KAPANAGA, 10 TEL.: 94 466 93 60 FAXA: 94 466 93 61 48200 IURRETA

ondo pasa jaietan!

Zubiaurrea kalea, 4 behea IURRETA
Tel.: 94 620 08 28

Adatz
ILEAPAINDEGIA

Launa plus
Ondua

Launa
Atariak Fria

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

URIEN TABERNA
LA CUADRA

Bixente Kapanaga, 10 • Tel.: 94 681 10 95 • IURRETA

L+i=b
restaurantebetako jatetxea

Arduradun berriak, sukalde berriak.

Lander Urien Igor Solaguren

(Iturburo, 9, 48215 Iurreta (Bizkaia))
tel.: 94 681 78 47
www.restaurantebetako.com

KAFETEGIA

iBAi
-ONDO

Bixente Kapanaga, 11
48215 IURRETA
94 620 21 57

Aiartzaguenaren kartela irabazle



A iartzaguenatarrek badaukie herriko kartel lehiaketetara lanak aurkezteko ohitura. Aurten lehiaketan izan diren zazpi lanetatik lau eurenak ziren. Liher Aiartzaguena izan da epaimahaiarentzat kartel dotoreena sortu dauena.

Zelan hartu dozu saria?

Hainbat bider aurkeztu dot kartelen bat, eta ez dot sekula irabazi, beraz, sorpresa izan da. Familian lau kartel aurkeztuta baten batek irabazteko aukera handia geunkala bai, baina neurea izatea ez neban itxaroten.

Zer adierazo gura izan dozu?

Abadetxea agertzen da. Beti izan da jaietako zentroa; dantzariendako, Jai Batzordearendako, Gaztetxearendako... Erre zene-tik ezer egin barik egoteari lotsagarri deritzot. Eraikinaren ondoan txapligo formagaz donien-atxa agertzen da.

Kostatutako lana izan da?

Erraza izan dela esan behar dot. Egun bateko lana izan da. Ideia bera sortzea kartela egi-tea baino gatzagoa da.

Zenbagarrenez aurkeztu dozu lanen bat lehiaketara?

Txikitan aurkeztu nituen hainbat lan, eta beti anaiak irabazten ebanez, itzi egin neutsan. Anaiak lau bider irabazi dau lehiaketa, eta arrebak behin. Oraingoan be ez neukan asmorik, baina astebete falta zela ideia sortu jatan, eta aurkeztea erabaki neban.

Nondik jatortzue zaletasun hori?

Txikitan marrazketara joaten ginen, eta gure lanak aurkeztuten genduzen.

Kartela ikusterakoan ingurukoek zer esan deusue?

Denetarik entzun dot inguruan. Batzuk polita dela esan deuste, beste batzuei motza iruditu jake. Neu be, kartela geroago eta gehiago ikusi, nekatzen nabil.

Anderebide ezagutzera emoten

Anderebide emakume taldeak jaietako egitaraua aprobetxatu dau taldea jendaurrean aurkezteko. Herriko 70 emakumek dagoeneko taldeagaz bat egin dabela azaldu deuskue elkarteko arduradunek. Pausoz pauso geroago eta emakume gehiago elkartean izatea gura dabenez, herritarrei parte hartzeko deialdi zabala egin deutsee. Goiuria kultur etxean daukie egoitza.

Jai egitarauan elkartekoen interesekoa izan leitekeen ikuskizuna be antolatu dau Anderebidek. Ibarretxe kultur etxean urriaren 1ean *Cruzadas cotidianas* antzezlanak lau emakumeren bizipenak taularatuko deuskuz. Cristina Castillok idatzi eta antzeztutako saioa ikusteko hitzordua 19:00etan jarri dabe.



anbotok JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ!

on egin janak
eta kalterik
ez edanak

anboto >
komunikabideak



AUKERAKO IBILGAILU INDUSTRIALEN AZOKA

URRIAK 3 ETA 4, IURRETAN

1.500€_{ko} DESKONTUA

Azokako ibilgailu industrial guztietan

1.000 m² baino gehiagoko erakusketa



KANGOO EXPRESS

1.9 D 55cv
(2004) 80.100 km

3.700€*



**TRAFIC FURGÓN
LARGO NORMAL 2900**

1.9 dCi 100cv
(2006) 97.800 km

9.400€*



**MASTER COMBI
CORTO NORMAL 3500**

2.5 dCi 100cv
(2006) 65.000 km

10.350€*

Larunbata 10:00etatik 20:00etara. Igandea 10:00etatik 14:00etara

* Ballozkoa azokan edo izakinak agortu arte. Prezioetan deskontua barneratuta dago. Zergak ez daude barneratuta. Eskaintako bertsioak eta iragarkian erakusten direnak ezberdinak izan daitezke.

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

GAURSA ARRIANDI, 12 - IURRETA. TEL: 94 620 33 00 www.gaursa.com



ZINEMA> ELKARRIZKETA

Madriken ei zabilz ikasketak burutzen...

Bai, Madriken nabil Ikus-entzunezko Ekoizpena ikasten. Orain urtebete etorri nintzen, eta beste ikasturte bat eta gero praktikak egitea geratzen jat, ikasketak amaitutzat emoteko.

Abuztuan, baina, Abadiñora bueltatu zara lanera?

Udako hiru hilabeteak aprobetxatu ditut kide nazen taldeagaz, Banarte antzerki taldeagaz, film labur baten grabazioan burubelarri sartzeko. Orainxe lanari azkenengo ikutuak emoten nabil, eta urriaren 3an Abadiñoko Errotan aurkeztuko dogu.

Zer falta jatzu 'El prestamo' lana amaitutzat emoteko?

Oso gitxi falta jako; audioari eta koloreari jagokezen zuzenketak egiten nabil oraintxe. Momentu honetan, edizinoan sortu jatan zailtasun bat konpontzeko laguntzen etorri jatan lagun bategaz lanean harrapatu nauzue.

Banarte antzerki taldeagaz zer hartu-emon daukazu?

Sortu zenetik naz taldeko kide, izan be, interpretazinoa ikasten eta antzerkiaren inguruan ibili izan naz beti. Antzerkia eta film laburra egitea izan dot beti gogoko. Orain, ni Madriken bizi arren, taldea mantentzen dela eta elkarregaz lan egitea posible dela ikusteak asko poztzen nau.

Aurretik egin izan dozu film laburren zuzendari lanik?

Bai. Abuztu honean *El prestamo* grabatzen jardun dogunetako askok elkarregaz egin izan doguz beste film labur batzuk. Kanpoko ezelako laguntzarik barik jardun dogu lan hori sortzen taldeko 25 lagunek.

Orain arteko proiekturik handiena izan da, beraz?

Zelanbait bai, lan gehien eskatu dauena izan da. Grabazioaren aurre-produkzioa Madriken lan-

du neban aurretik, eta apur bat arindu dau horrek lana. Batez be, abuztuan lan egitea izan da gatxa; kolaboratu dauen jente guztia elkartzea gatxa izan da, baina denporagaz eta dedikazioagaz lortu egin dogu.

Emaitzagaz, beraz, oso pozik egongo zarie.

Bai, arazo batzuk eduki doguz arren, eguraldiagaz adibidez; kanpoan grabatzea pentsatuta geunkan egun baten euria egin eban, eta kostatu egin jakun gura genduenalortzea. Metereologia jakin bat gura genduen. Halan be, lana oso ondo gertzen dabilela uste dot.

Urriaren 3an
Abadiñoko Errota
kultur etxean
aurkeztuko dabe

“Ikasturte bat
geratzen jat
ikasketak
amaitzeko”

'El prestamo' lan hori zuen herriko Errota kultur etxean aurkezte berezia izango da taldekideentzat...

Herriko jenteak gure lana ikusi daian aukera izatea oso polita da. Urriaren 3an Errotan izango da. Taldekideok be han elkartuko gara berriro.

Noiztik jatortzu zinemagintzan aritzeko gustua?


Txikitatik izan dot gustuko antzerkia, eta adin batera helduta konturatu nintzen egin gura neban hori egiteko, Durangon eta inguruetan oso mugatuta nengoela. Ikasketak amaitu eta fabriketan hasi nintzen lanean, baina egun batean erabaki neban beste zerbait zela egin gura nebana.

Eta antzerkian hasi zinen...

Antzerkian zein zineman, istorioak kontatzea da gogoko dodana, istorioa bera da bitartekoa baino inportanteagoa.

“Zineman zein antzerkian, istorioak kontatzea da aspalditik gogoko dodana”

Egunotan denon ahotan den Zinemaldian ez, baina bere herriko Errota kultur etxean urriaren 3an aurkeztuko dauen film laburrari azken ikutuak emoten dabil 28 urteko **Ekaitz Elgezua** Madriken



Gustu hori bera daukien lagunak sortu zenduen Banarte.

Halan da. Zinemagazko har hori dogun lagunak elkartu, eta Banarte sortu genduen. Hortik abiatuta hasten da bat gero jente gehiago ezagutzen, honetan lanean dabilen jentea ezagutzen. Holan hasten gara denok.

“Zinema eta
antzerkia gogoko
dogun lagunak
elkartu gara”

Zer kontatzen dau 'El prestamo' pelikularen istorioak?

Lan horren sorburuan dagoen ideia txiste bat da; irratian entzun neban behin, euro bateko mailegu bat eskatzeko bere autoa berme moduan itzi ebalabatek. Ideia horretatik tiraka sortu neban 'El prestamo'. ■ I.E.

“Kanpoko laguntza
barik egin dogu lana
25 lagunek”

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

IRAILAK 25 22:00etan
SET + LINEA2
KONTZERTUA. Sarrera: 6 euro.

IRAILAK 26 22:00etan
GATIBU
Zuzeneko DVD grabazioa
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

URRIAK 3 22:00etan
ESTAMPIDA (Arg) + SHINOVA + BONUS TRACK
KONTZERTUA.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ROSAS ROJAS La Papa Teatro (Durango)

Irailak 26 20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

11.51 601 07 76 Artekale, 14 Durango

AGENDA>

>ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Irailaren 26an, 20:00etan

'ROSAS ROJAS'

Gizartea hunkitu eta arduratzen daben gai korapilotsuei buruz sentsibilizatu guran tratatu txarrak hartu ditu berbagai oraingoan La Papa antzerki taldeak 'Rosas Rojas' obraren eskutik. Lydia eta Raulen arteko maitasun istorioa aurkeztuko dabe San Agustin kulturgunean. Hasierako pasioaren ondotik manipulazio emozionalaren eta psikikoaren arrastoa azalduko da oholtza ganean... tratatu txarren hasieraren lehen aztarnak, alegia.

ANTZERKIA

DURANGO

- » **'Rosas rojas' (La Papa Teatro).** Irailaren 26an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

ERMUA

- » **'Optimismo global' (Pocaconya y Punto),** irailaren 25ean, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

BERBALDIA

DURANGO

- » **'Bularra emotea: aukerarik osasungarriena'.** Irailaren 28an, 18:00etan, Pinondo Etxean. Euskadiko Esnearen Ligak antolatuta.



BERTSOAK

ZALDIBAR

- » **Berto-afaria: Igor Elortza + Unai Iturriaga.** Irailaren 25ean, 21:00etan, Goierriko auzo etxean (txartelak Paularen zokoan eta Karobi tabernan salgai, 20 euroan).

BESTEAK

ABADIÑO

- » **Klasikoen rallya,** Clasicos Durangok antolatuta. Irailaren 26an, 14:00etatik 16:00etara, 35 kotxe historikoren erakustaldia, Probalekuaren aurrealdean.

DURANGO

- » **Santa Anako indusketara bisita gidatuak.** Irailaren 25ean, 19:00etatik aurrera. Irailaren 26an eta 27an, 10:00etatik aurrera. Ordua hartzeko, barriz, Turismo Bulegora jo leiteke (94 603 39 38).
- » **Klasikoen Rallya,** Clasicos Durangok eratuta. Irailaren 25ean, 20:00etan, Ezkurditik irtengo dabe.

ELORRIO

- » **Euskaltelen Bus Teknologikoa.**

Irailaren 25ean, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:00etara, merkatuaren alboan.

ERMUA

- » **Enpanada jaia.** Irailaren 26an, 11:00etan hasita, Extremadurako Kultur Zentroan.

ZORNOTZA

- » **'Erdi olgetan', umeendako aisialdi programa (6-10 urte),** irailaren 26an, 16:00etatik 20:00etara, Zelaieta zentroan.

DANTZA

DURANGO

- » **Adinekoendako udako dantzaldiak: Trio Moby-Dick,** irailaren 27an, 18:30etik 20:30era, Ezkurdi plazan (euria bada, Azoka plazan). Adinekoen Sailak eratuta.

DEIAK

DURANGO

- » **San Faustoetako nagusiendako bazkaria.** Txartelak urriaren 1etik aurrera hartu leitekez, Adinekoen Udaleko Egoitzan (Astarloa, 1-2). Bazkaria urriaren 13an izango da, Landako erakustazokan.
- » **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea.** Eguenero, 20:00etan, Andra Mariako elizpean. Durangoko Plataforma Feministak deituta (Bilgune Feminista eta Andereak elkarteak).
- » **Odola emoteko aukera,** Eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

BERRIZ

- » **Koldo Gisasolaren argazkiak.** Irailaren 25etik urriaren 11 bitartean, Kultur Etxean.

DURANGO

- » **'Andra artean', Durangoko**



emakume artisten lanak, irailaren 27a arte, Ezkurdiko aretoan.

ERMUA

- » **Ertibil Bizkaia: Bizkaiko artista**

gazteak, urriaren 4a bitartean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

- » **'Urdaibai' (Unesco Etxea),** urriaren 1etik 16a bitartean, Zelaieta zentroan.



IKASTAROAK

BERRIZ

- » **Euskara eskolak eta Berbalagun,** Udalak AEK-gaz batera antolatuta. Izena emoteko epea zabalik dago irailaren 30a bitartean (94 681 73 49 -Miren / 94 682 40 36-Euskara Saila).
- » **Zeramika ikastaroa, astialdiko begirale ikastaroa eta areto dantza ikastaroa** (azkena hori gazteleraz), Kultur Etxean. Izena emoteko azken eguna irailaren 25a. **Mikologia tailerra eta umeendako**



salsa ikastaroa be bai. Irailaren 30a arte emon leiteke izena.

DURANGALDEA

- » **Euskalduntzea, EGA eta HABE azterketa ofizialak, hizkuntza eskakizunak, autoikaskuntza...**, AEK-euskaltegietan. Matrikulaldia zabalik (abararak@aek.org / 94 681 73 49; abizari@aek.org / 94 658 21 11; zornotza@aek.org / 94 673 43 70).
- » **Unibertsitateko Kultur Aisialdia: 'La política exterior de Estados Unidos en un mundo en cambio' (Josu Otxoa) + 'El cine a través de la psicología: un cruce infinito de caminos' (Bittor Arnaiz).** Durangaldeko Mankomunitateko Adinekoen Sailak Deustuko Unibertsitateagaz batera eratutako ikastarootan izena emoteko epea zabaldu dabe (94 620 05 46).
- » **Erretzeari izteko ikastaroak,** Durangaldeko Mankomunitateko Drogomenpekotasun Prebentziorako Sailak eratuta. Urriaren 5ean hasiko dira (goizez eta arratsaldez) eta izena emoteko epea hasita dago dagoeneko



(94 620 05 20 / Askatasun Etorbidea 11, Durango).

DURANGO

- » **Euskalduntzearen 4. maila (4. HEren titulu baliokidea),** urriaren 6an hasita, AEK-Abarrak euskaltegian: 180 ordu eta 10 tutoretza saio. Izen-emotea urriaren 5a arte (94 681 73 49).
- » **Emakumeendako Jabekuntza Ikastaroak,** urrian hasita, Andragunean. Aurrez izena emoteko, irailaren 25ean eta 28tik 30a bitartean. Zozketa egunak, barriz, urriaren 1a eta 2a (www.durango-udala.net).
- » **Aisialdiko begirale izateko ikastaroa,** Urtxintxa eskolaren eskutik (200 ordu teoriko eta 120 praktikoa). Berbaro elkarteak eratuta. Izena emoteko epea, irailaren 30a bitartean (94 620 19 18).
- » **Aisa-Etorkinendako euskara ikastaroak,** urriaren 1ean hasi eta abenduaren 16a bitartean. Martitzen eta eguaztenetan izango dira 16 urte edo gehiago ditueen etorkinendako eskolak; 19:00etatik 21:00etara. Izena emoteko azken eguna irailaren 30a, Udaleko Euskara Sailean (94 603 00 30 / www.durango-udala.net).
- » **GAP, batuka, tenis eta spin-bike.** Landako kiroldegian (94 603 00 31 / www.durangokirolak.net).

ELORRIO

- » **Dantza ikastaroak: dantza modernoa, sabel dantza, areto dantzak eta Karibeko dantzak.** Urrian hasita. Ikastaroa antolatzeke, gixienez, 10 lagun beharko dira, eta eskolak 10:00etatik 12:00etara izango dira. Informazio gehiago Iturri kultur etxean (94 603 20 32).

IKUS-ENTZUN

ZORNOTZA

- » **Andres Espinosa Gogoratzuz: 'Iran. Topikoen aurkako bidaia' (Asier Aranzabal eta Mila Gallastegi),** irailaren 30ean, 19:30ean, Zelaieta zentroan. **'Islandia, una naturaleza indómita' (Luis Alejos Escarpe),** urriaren 1ean.

JAIAK

DURANGO

San Fausto

- » **Egitaraua aurkeztuko dau Txosna**

Batzordeak, irailaren 26an, 11:30ean, Ezkurdi plazan. **Bertso-bizikleta marxa** hasiko da, 11:45ean, bertatik abiatuta. Bitarte horretan, **umeendako jolasak** egongo dira. **Bazkaria,** 13:30ean, Andra Marian (txartelak Ibaizabal ikastolan, Atxo Fun Funen, Intxaurren eta Alpinon salgai), eta, 17:30ean, **trikitilariekin poteoa.**

Andra Mari Mesedetakoa

- » **Goienkaleko jaietako otzara zotz egingo dabe,** irailaren 27an, 14:00etan, tabernetan.

IURRETA

Sanmigelak

- » **Perkusino tailerra,** irailaren 25ean, 19:30ean, adin guztietakoentzat. **Frontenis maratoi herrikoia,** 20:00etan, Olaburu frontoian.
- » **Folklore agerraldia: Magüaré dantza taldea (Kolonbia) + Mikel Deuna (Iurreta) dantza taldea.** irailaren 25ean, 21:00etan, Askondo plazan. Ondoren, **Tamsa (Afroarabiarra) taldeagaz kale animazioa.** **Asier Bilbo eta Disko Festa,** 23:00etan.



- » **Herri-kirolak,** irailaren 26an, 12:00etan, Amilburun. Harri-jasotzailea eta Iparraldeko jokoak. **Durangoko Rally Klasikoa,** 13:15ean, eta, Arriandin, 17:00etan, eskola arteko MB-ko kriteriuma.

- » **Asto-probak (gonbita behar da),** irailaren 26an, 18:30ean, eta, 19:00etan, Amilburun, **umeendako erromeria: Plis Plas.** Askondon, 21:30ean, **Mariatxiak.**



- » **Rock kontzertua: Delirium Tren Ez + Silikosos + Hilbete + Disorders,** irailaren 26an, 22:30ean, Aita San Migel plazan.

- » **'Gaiteros de Elciego & Friends',** irailaren 26an, 12:30ean, Aita San



Migel plazan. **Umeentzako parkea,** 16:30ean (euria bada, Maiztegiko frontoian). **Amaiztean txokolatada.**

- » **Asto-probak (gonbita behar da),** irailaren 27an, 18:30ean, eta,

19:00etan, Dantzarien, **Detraka-Zirkus Mirkus pailazoak**. Askondon, 20:30ean, **‘Los Barbis’**.

» **Txapligoak**, irailaren 28an, 12:00ean, Montoitik. Ondoren, **kalejira dultzainero eta trikitilariak alaituta**. Amilburun, 12:15ean, **Umeendako ikuskizuna: ‘Hipo eta Tomas’** (euria bada, Ibarretxe kultur etxean). **Jubilatuen bazkaria**, 14:00etan, frontoian. Jarraian, **erromeria Iñaki Uribesalgo soinu-jotzaileagaz**. Aita San Migel plazan, 14:30ean, **gazte bazkaria**.

» **Ohiturazko Doniel-Hatxa altxatuko dabe**, irailaren 28an, 18:00etan, eta, gero, **dantzarien azken entsegua**; 22:00etan, **Luhartz taldeagaz erromeria**.



» **Dantzari, agintari eta herritarren kalejira**, irailaren 29an, 10:30ean, Montoitik Aita San Migel plazara. **Meza nagusia**, 11:00etan, eta, 12.30ean, **bertsolaria: Unai Iturriaga, Gorka Lazkano eta Eneko Abasolo ‘Abarkas’**.



» **Iurretako Kofradien Arteko II. Herri-kirol Lehia**, irailaren 29an, 16:30ean, Aita San Migel plazan. Ondoren, **Dantzari Dantza eta neskek egindako Soka Dantza**. Jarraian, **Oxabi taldeagaz erromeria**.

» **Hilen aldeko meza**, irailaren 30ean, 19:00etan, Aita San Migel eleizan.

» **Txikien lehenengo hartu-emona ponyekin**, urriaren 1ean, 16:45ean, Aita San Migel plazan (euria bada, Maiztegiko frontoian). **‘Cruzadas cotidianas’ antzezlan**a, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.



LEHIAKETA

ABADIÑO

» **2010. urteko Argazki Lehiaketa**. Abadiño eta ingurua gai hartuta www.abadiano.org webgunean aurkeztu leikez lanak (gehienez lau) 16 urtetik gorako edozein erabiltzaile erregistratuk, irailaren 30a arte. Urriaren 1ean emongo ditue jakitera aukeratutakoak eta 31 arte emon ahal izango da botoa. Boto gehien ditueen argazkiei 12 sari emongo deitseez, eta 2010eko udal egutegian argitaratuko ditue. Boto gehien dituen argazkiak 300 euro lortuko ditu.

BERRIZ

» **I. Eskultura Lehiaketa**. Proiektua azaroaren 2tik 27a artean aurkeztu leike, norbanakoak zein talde batek (artelanaren maketa eta kokapena zehaztu behar da), Kultur Etxean.

Saria: 18.000 euro. Udalak eratuta (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGO

» **‘Durango Uriak’ 9. marrazki lehiaketa**, Durangaldeko Artisten elkarteak eratuta. Gai librea izango da eta lan bakarra aurkeztu leiteke (aurretik inoiz bestelako lehiaketetan aurkeztu bakoa). Sariak: 1.ak 600 euro irabaziko ditu, 450 euro 2.ak eta 300 euro 3.ak. Horrezaz gainera, tokiko lanik onenak 300 euroko saria lortuko dau. Irailaren 28tik urriaren 2a bitartean aurkeztu leitekez lanak, Arte eta Historia Museoan (605 721 610-Jose Luis).

» **‘Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa laburrak eta olerkia’ lehiaketa**. Urriaren 30a arte helerazo leitekez Andragunera. Uriko eskoletako haur eta gazteak eta kanpoko eskoletako ume eta gazte durangarrek parte

hartu leikie (13-18 urte); 18 urtetik gorako sailean edonork. Adinaren arabera sailetan 100 eta 200 euro arteko liburu sortak emongo ditue. 18 urtetik gorako sailean 600 euro (kontaketa laburretan) eta 300 euroko (olerkietan) sariak.

MUSIKA

DURANGO

» **Set + Linea2**. Irailaren 25ean,



22:00etan, Plateruena kafe antzokian.

» **Gatibu**, irailaren 26an, 22:00etan, Plateruenean.

Irailaren 26an, 22:00etan

GATIBU GERNIKARREN DOINUAK, PLATERUENEAN

Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik azkeneko lanean batutako doinuak ekarriko ditue, beste behin, Gatibuko gernikarrek Plateruena kafe antzokira. Zapatuan izango da Durangon ‘Gazte Sariatari’ kantu onenaren eta disko onenaren saria lortu dauen taldea, haren jarraitzaileen gozamenerako. Aitatu daigun, gainera, zuzeneko DVDaren grabazioa egiteko aprobetxatuko dabela kontzertu hori. Gaur, barriz, SET bermeotarrek eta Linea 2 Basauriko musika taldeak emongo dabe kontzertua Platerueneko oholtzan.

ERMUA

» **Ermuan Kantuan**, irailaren 26an, 12:30ean, Orbe Kardinalaren. Euskal Birusa euskara elkarteak eratuta.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **‘Desgracia’**, urriaren 1ean, 20:30ean, Zugaza Zinema.

ELORRIO

» **Hilen behin.dok: ‘Celebration of flight’**, urriaren 1ean, 19:30ean, Iturri kultur etxeko areto nagusian.

ERMUA

» **‘El caballo de dos piernas’**, urriaren 1ean, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

IURRETA

» **Zine emanaldia**, irailaren 25an, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA

» **‘The Labyrinthine Biographies of Vojtech Jasný’**, irailaren 28an, 20:00etan, Zornotza Aretoan. Arkaitz Basterra zuzendariak bere filma aurkeztuko dau.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Los sustitutos

Zuzendaria: Jonathan

Mostow

barikua 25:

19:00 / 22:00

zapatua 26:

19:30 / 22:30

domeka 27:

19:30 / 22:30

astelehena 28: 19:00 / 22:00

martitzena 29: 20:00



Umeendako zinema

Oceanworld (3D)

zapatua 26: 17:00

domeka 27: 17:00

BOTIKAK

Barikua, 25

09:00-09:00

• Irigoien

(Bixente Kapanaga 3 - Iurretari)

Zapatua, 26

09:00-09:00

• Gaztelumendi

(F.J. Abasolo 2 - Durango)

09:00-13:30 (*14:00)

• Campillo / Sagastizabal / San Roma / De

Diego / Unamunzaga / Balenziaga

(Durango)

• Irigoien

(Bixente Kapanaga 3 - Iurretari)*

• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)*

09:00-22:00

• Eguren, Isabel

(Torresolo 4 - Abadiño)

Domeka, 27

09:00-09:00

• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)

Astelehena, 28

09:00-09:00

• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)

09:00-22:00

• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)

Martitzena, 29

09:00-09:00

• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

Eguaztena, 30

09:00-09:00

• Campillo (Montebideo 24 - Durango)

Eguena, 1

09:00-09:00

• Sagastizabal

(Askatasun Et. 19 - Durango)

09:00-22:00

• Eguren, Cristina

(Trañabarren 15 - Matiena)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112

DYA94 620 28 00

Gurutze Gorria94 681 09 49

Osakidetza94 600 72 00

Ertzaintza94 466 93 00

Suhiltzaileak112

GARRAIOAK

Euskotren.....902 54 32 10

Durango94 681 02 32

Bizkaibus94 448 40 80

Pesa902 10 12 10

Continental Auto945 286 466

TAXIAK

Abadiño946 814 470

Matiena606 459 988

Durango Geltokia.....946 811 001

Goco Tour946 202 860

Tele Taxi944 102 121

Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026

Elorrio Geltokia946 820 040

J.L. Uriarte670 402 002

I. Estebez670 678 273

M Galeano.....946 582 854

Iurretari946 201 565

Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30

Atxondo94 682 10 09

Berriz94 682 45 84

Durango94 603 00 00

Elorrio94 658 27 12

Garai94 681 63 93

Iurretari94 620 12 00

Izurtza94 681 35 48

Mallabia943 17 14 61

Mañaria94 681 89 98

Otxandio945 45 00 20

Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33

Berriz94 682 40 36

Durango94 603 00 10

Elorrio94 682 02 18

Iurretari94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92

San Agustin94 603 00 21

Zornotza Aretoa94 630 01 68

Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47

Errota KE94 466 94 16

Gorabide94 681 24 35

Alkoholiko Anonim.94 415 07 51

Nekazal bulegoa94 681 15 20

Uren Partzuergoa ..94 681 74 86

Butanoa (UME).....94 681 08 77

Araztegia94 620 28 00

Foru Ogasuna.....94 681 07 42

INEM Durango94 681 12 96

Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58

Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua

Astola94 620 29 29

Igerilekua

Atxondo94 623 14 38

Berriz94 682 43 74

Durango

(Landako).....94 621 51 30

Durango

(Tabira)94 621 51 50

Elorrio94 682 10 27

Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

14 18° BARIKUA



Giro eguzkitsua gailenduko da. Goizaldean behe-lainoa eta hodei multzoak agertuko dira, baina jasotzera egingo dau eta giro bikaina izango dogu. Tenperaturak apur bat beherago geratuko dira.

12 21° ZAPATUA



Aurreko egunetan baino hodei gehiago ikusiko dogu, baina ostarte ederrak zabalduko dira, eta eguzkia bistan izango dogu. Goizean goiz hodeiek euri langarra itzi leike. Haizea norabide finko barik ibiliko da.

11 21° DOMEKA



12 22° ASTELEHENA



12 24° MARTITZENA



ERITZIA[>]

Gutunak



Herriko frontoia, baina ez herritarrentzako frontoia

Uda honetan zehar, lagunekin batera izerdi apur bat botatzeko gogo sartu izan jat sarritan, eta fronteniseko erraketa eta pilotak hartuta frontoiko bidea hartu dogu, hiru edo lau bider. Iurretakoak izanda, gure herriko pilotalekua izan da beti lehen aukera, baina hara ailegatzean harriduraz ikusi dogu atea itxita egon dela. Bertara joan garen kasu guztietan gertatu jaku hori. Lehenengo aldian arazoren bat egongo zela oentsatu genduen, baina azkenean neurriren bat hartuta dagoela konturatu ginen.

Horren ondorioz, kotxea hartu eta eskualdeko beste herri batzuetara jo behar izan dogu, beti egoera ezin ulertuta. Izan be, frontoia publikoa bada, zelan leiteke itxita egotea? Ez al dogu guk ordaindu geure dirutik?

Nire ustez, frontoia zabalik egon beharko leuke, egunez bakarrik bada be. Pilotazaleok –eta, batez be, umeek ordu libreetan kirol eder horretan jolasteko aukera izatea eskubidea dela pentsatzen dot. Bestela, nondik sortuko da pilotarako afizinoa? Ez al da pilota gure herrian indar handia izan dauen kirola?

Kanpoko leihostatik begiratuta, behintzat, oso txukun ikusten da frontoia egindako obren ondoren. Dena dela, penagarria iruditzen jat hain pilotaleku polita erabiltzea ezinezkoa izatea. Eskualdeko beste herrietan neurri berbera ez ezartzea itzaroten dot, pilota partiduak ikusteagaz ez gara eta konformatzen.

Ia frontoira goazen hurrengo aldian sorpresa hartzen dogun, baina onerako.

Mikel Aguirre (Iurreta)

Ustezko mugatik kanporatuak

Irailak 18, larunbata. Arratsaldeko 19:00ak dira eta, 3 ordu luzez kotxe ilaran egon ostein, Gendarmeen kontrola. Bidean, zer gertatu ote da? Kotxe istripuren bat... Azkenaldian A8an hain famatuak diren obrak... Ez ba! Gendarmeen aspaldi desagertutako muga itxi eta banan-banan aurrera botatzen hasi gara. Beraiegana heldu eta eskumara sartzeko gonbita egin digute: susmagarri aurpegia ote? "Documentacion y papeles del coche", beraien ahotik ateratzen den esaldi bakarra. Frantsesez beraiekin hitzegiten saiatzen gara, baina ezer ere ez, badirudi gure frantsesa ez dela beraien mailakoa...

20 minuturen ostean, badatoz gure dokumentazioarekin oster. Baina gure haridurarako ez dituzte gure dokumentuak bakarrik eskutan, hauekin batera bakoitzarendako gutuntxo bat, 'Kanporatze gutuna', 24 ordutan Frantzian sartzea debekatzen digun gutuna. Haridura aurpegiak eta jarraian datozen galderak. Zergatik? Zer arrazoi inolako deliturik izan gabe mugarik gabeko denon Europa honetako estatu baten barrura sartzea debekatzeko?

Ustez manifestazio bat burutuko ei da Donibane Lohitzunen, eta gu bertara joateko eta bertako orden publikoa apurtzeko susmagarriak gara. Haridura handiagoa oraindik, baina, gu ez goaz bertara. Hendaiera gindoazen, bai-

na ez, ez du balio; ezta Belgikara joatea erabaki izan bagenu ere. Ez dago atzera-bueltarik. Beno, badago: kotxea hartu eta berriro ere Bilboko norabidea hartzea.

Arratsaldeko 19:00ak, eta 17:00etan burutzekoa zen manifestazio batera joateko debekua. Kuriosoa, ezta? Kuriosoa gobernu frantsesak debekatu gabeko manifestazio batera joatea galaraztea. Zer arrazoi dago euskaldun baten desagertzea salatze-ko egindako manifestazio batera joateko muga hiru orduz geldi edukitzeko? Gogoeta egiteko kontua... Baina, hala ere, kurio-agoak dira hau ekiditeko moduak. Donibane Lohitzunen dagoen manifestazio batera jendea joatea galaraztea baldin bada nahi dutena, zergatik ez dute bertan kontrola jartzen? Horrela, beste edozein tokira joan nahi dugunok, gure eskubidea den bezala, ez dugu aukera hori galduko. Baina, badaezpada, ez dut ideia gehiagorik emango.

Badakizu, mugaz bestaldera asteburu-pasa joan nahi duzunean, lehenengo informa zaitez ia manifestaziorik badagoen...



Ainhoa Arizmendiarieta (Elorrio)

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefona, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Aitor Aurrekoetxea

Irakasleak

Duela egun batzuk komunikabi-deetan Mugika Herzoger-en adierazpen batzuk agertu ziren, non irakasleekiko errespetua aspaldi galdu dela, eta, Sarkozy-k Estatu Frantsesean proposatu duen moduan, zukako tratamendua berreskuratu beharra azpimarratzen zuen. Ez hori bakarrik, Mugika Herzogerrek esaten zuen irakasleak klasean sartzean ikasle guztiek zutik ipini beharra dutela, ikasge-lan nork agintzen duen argi gera dadin. Hori klasikoek 'autoritate printzipioa' deitzen zioten.

Gure artean ere batzuk –ez PPkoek bakarrik– gutxi gorabehera proposatzen ari diren hau litza-teke: irakasleak bere eremuan legal-ki polizia batekin parekatzea. Hori horrela, ikasleren batek irakasleren bat mehatxatuko balu, autoritatearen kontrako atentatu gisa hartu beharko litzateke, kon-tuan izanda egoera horrek ondorio penalak ekarriko litzukeela.

Egia esan, Bigarren Hezkun-tzako ikastetxeetan lanean dabil-tzan lagun batzuk ere ados daude diagnosiarekin, beraien ustez gure gaurko gazteek gizabidezko hezi-keta eskasa dutelako. Hala ere, nire uste apalean, hau horrela bada, aka-tsa hezkuntza sistemari leporatu aurretik familiei egotzi beharko genieke, edo hobeto esanda, fami-liarengandik jasotako ohitura dese-gokiei. Alegia, jendeak kontrakoa pentsatzen duen arren, gazteengan eta umeengan familian ikusiak era-gin handiagoa izan ohi du eskolan ikusiak baino. Beraz, gurasook gure seme-alaben erreferente nagusia garelako sinistu beharko dugu.

Jakin badakidan arren siste-mari hainbat gauza leporatu die-zazkiokegula, kasu honetan uste dut gurasoona dela ardura nagusia. Azken finean, kate amaigabe honetan gu gara balioen transmi-sore inportanteenak, eta inor kezkin du beste aldera begiratu. Dena den, oso zaila da asmatzea eta balio komunak helaraztea, iritzi desberdinak ditugulako arazo horri aurre egiterako orduan. Ideologia berbera ere ez dugu gurasook, bai-na gizalegezko balio horietan bat egitea da gizarte aurreratu guztiek duten erronkarik inportantenet-rikoa. Beraz, has gaitezen, beran-du baino lehen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa



anboto
 durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
 2009ko irailaren 25a - 8. urtea - 344 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.

KIROLAK >



Argazkia: Judit Fernandez

Nobedadea klasikoen iragarle

Gaur eta bihar IX. Klasiko-en Rallya korrituko dute Bizkaia osoan zehar (500 kilometro), Durango erdigune dutela. Gaur, 16:00etatik aurrera, Landako erakustazokan batuko dira parte-hartzaileak. Autoen estampa klasikoa Porsche Panamera berriak apurtuko du. Izan ere, auto enpresa alemaniarrek Durango aukeratu du Bizkaian bere nobedade berria aurkezteko: lau

ateko Porschea. Lasterketa hasi bitartean, Landakon ikusgai egongo da harribitxi hori.

20:00etan ekingo diote lasterketari, Ezkurditik. Jardunaldi bitan Bizkaia osoan ibiliko dira, eta Gipuzkoako eta Arabako lurak ere zapalduko dituzte. Zapatu goizaldeko 01:00etan Lekeitiotik Ondarroarako 12 kilometroko tramua osatuko dute, 112 bihurgunegaz.

Bihar, 10:15ean, Montecalvon zehar ibiliko dira; sei bider pasatuko dituzte, noranzko bietan, Montecalvoko bihurgune itxiak. Hara joaterik ez daukan zaleak, 13:00etan lurretan eta 14:00etan Abadiñoko probaleku aurrean izango du auto klasikoak bertatik bertara ikusteko aukera. Arratsaldean, Elgetako, Arrasateko eta Otxandioko bideak zeharkatuko dituzte.

‘Panamera’ lau ateko Porsche-a aurkeztuko dute Klasikoen Rallyan

Ohi den legez, pilotuaren trebezia bezain garrantzitsua izango da kopilotuaren argitasuna ibilbidean kokatzeko eta kronometroagaz duen zehaztasuna. Parte-hartzaileen artean hiru izen nabarmendu dituzte: Castor Ortega eta Mari Carmen Díaz valentziarrak (Espainiako Txapeldunak), 1979ko Opel Kadet GTagaz, eta Pedro Horrillo txirrindularia, VW 1302 autoagaz.

Durangaldean zehar

Bihar goizean, rallyagaz batera, Porsche kotxeen eta dagoeneko lasterketetan parte hartzeko moduan ez dagoen auto klasikoaren kontzentrazioa egingo dute. Porscheak parte-hartzaileekin batera joango dira Montecalvoko tramua osatzera. Gainerako klasikoek Durangaldean ibilaldia egingo dute, besteekin Abadiñon batzeko. ■ J.D.

24 Sasikoa lehenengo garaipenaren bila

Ohorezko A Mailara bueltan, talde durangarrak denboraldiko estreinako partidua jokatu du Landakon. Castro dute aurkari, mailaz igotzeko faboritoetako bat.

25 Elorriok gogor hasi du liga

Lehen Erregionaleko ibilbideari hasiera ezin hobe eman dio Elorriok. Etxean 3-1 egurtu zuten Errigoiti. Bihar Urdulizen kontra jokatu dute kanpoan.

Itxura txukuna emanez ekin dio ligari Sasikoak

Domekan Castro indartsua jasoko dute Landakon



Borja Crespok (eskuman) gol bat sartu zuen lehen jardunaldian Zalataborren aurka. Kepa Aginako

Ohorezko A Mailara bueltan, hasiera konplikatu egokitu zaio Sasikoari. Joan zen asteburuan Zilarrezko Mailan jokatuakoa den Zalataborren kontra ekin zioten ligari, eta 4-2 galdu zuten. Etzi mailaz igotzeko faboritorik handiena den Castro jasoko dute Landakon. Ez da hori Sasikoaren liga, badaki benetako desafioak beste batzuen kontra-koak direla. Hala ere, Zalataborren kontra 4-2 galdu arren itxura ona eman zuten (1-2 aurretik joan ziren) eta etxeko estreinakoan helburu bera dute: beldurrik gabe jokatzeko, aurpegi ematea eta, ahal bada, punturen bat urratzea.

Iaz arte Ohorezko B Mailan jokatzeko izenpot talde laudiorra desagertu egin da, eta Sasikoak han zebiltzan hiru jokalarik bereganatu ditu: Xabi Goitia eta Andoni Basagoitia hegalekoa eta Jose Basaguren atzelaria. Goitiak eta Basagurenak titular jokatu zuten; Basagoitia

goitia lesio batetik erreperatzen dabil oraindik. Lesionatuta dagoen beste bat Aitor Suarez aurrelaria da. Aurrendenboraldian belauneko lokailuaren zati bat hautsi zuen, eta ezin izango du jokatu datozen hiru-lau hileetan. Hutsune garrantzitsua da, golegile petoa delako. Berak eta Borja Crespok bikote arriskutsua osatzen dute. Erasoa hankamotz geratu zaie, beraz.

Dena dela, Crespok atearen aurrean zorrotz segitzen du —joan zen asteko bi goletako bat berea da—, eta Maikel Gonzálezek ederto lagundu zion. Bigarren taldeko jokalarik bi ere lehen taldeagaz dabilta. ■ J.D.

Aitor Suarezren lesioak hankamotz utzi du Durangoko taldearen erasoko jokoa

Elorriokok etxekoekin indartu du taldea

Elorrioko Buskantzak Ohorezko B Mailako denboraldia hasiko du asteburuan. Lau-bost jokalarik taldea eta areto-futbola utzi dute aurretik. Horien ordezkapena etxean aurkitu dute, eta B taldeko jokalariei emango diete aukera. "Orain pare bat urtera arte elkarrekin jokatzeko gurenez, jokalarik berriak azkarrago egokituko dira taldera. Abantaila hori daukagu", azaldu du Iñaki Duñabeitia jokariak.

Bihar Santurtzirekin kontra jokatu dute kanpoan. Santurtzi Ohorezko A Mailatik jaitsi berri da, eta horrelako taldeak, normalean, berriro mailaz igotzeko faboritoen artean aurkitzen dira. Elorriokoren helburua, berriz, mailari eustea da. ■ J.D.

Kurutziagak zalantzak uxatuz hasi nahi du liga

Aurrendenboraldi irregularren ondoren, iazko lorpenari eustea dute helburu

Sasikoak gainera, Kurutziagak ere iazko lorpenari eustea dute helburu. Ez galtzeko erronka gogorra du aurrez aurre.

Durangerrek Suisaco Armentiarren kontra ekingo diote ligari. Euskal Ligan urte asko daramatza Gasteizko taldeak, baina Iker Saez de la Cuesta entrenatzailea bere taldeak kezkatzeko du: "Liga hasierara berde samar iritsi garela uste dut. Aurrendenboraldiak zalantza asko utzi du. Beheragoko mailako taldeen kontrako partiduetan galdu ditugu".

Hala ere, lagunarteko azken partiduan itxura ona

eman zuten, Mallabia 5-3 menderatuz. Oraingoz jokalarik bi fitxatu dituzte talde nagusirako: Iker Arriaga —bi urtez areto futbola utzita egon dena— eta Iñigo Urien —Gu Lagunaketa Kurutziagan bertan aritu izan da aurretik—.

B talderako, berriz, lau lagun fitxatu dituzte: Jelko Uribe, Jon Ander Navarro, Pedro Roman eta Unai Balenciaga.

Kurutziagak batera Sasiko Bk osatuko du Durangaldekoen ordezkaritza Euskal Ligan. Sasikoak etxetik kanpora ekingo dio ligari, Meatzariren kantxan, hain zuzen ere. ■ J.D.

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Zalantzak

Futbolari profesionalak, betidanik eduki dau 'jubilatuko' eta gero entrenatzaile modura jarduteko joera. Euren esperientziagaz eta euren ibilbidean eduki dituen maisuekin ikasi daben guztiagaz, aurreratutako asko daukiela pentsatzen dot. Baina horrek guztiak arrakasta izatea bermatzen dau? Neure zalantzak daukadaz.

Niretzat, gauza horreetaz guztietaz gainera, bokazinoa behar da, eta langilea izan; zorte apur bat be behar da. Adibide bi erakutsiko deutsuedaz: Guardiola eta Maradona. Biak jokalarik handiak izandakoak, baina entrenatzaile moduan bestelako emaitzak daukiezenak.

Lehenengoak jokatzeko ebanean, bere taldekideei aginduak ematen pasatzen zituen partiduetan osoak (bokazinoa erakutsiz). Langilea dela be demostratu dau eta, zorte apur batez, zerua ikutu dau bere hatzamarrekin (tripletea). Eta oraindik gose dela ematen dau.

Bigarrenak, aldiz, jokatzeko ebanean ez eban inor behar, partiduetan irabazteko bera bakarrik nahikoa zelako; handiena izan da-eta. Horraino, ondo. Baina, orain, bere herriko hautatzaile izateko ardura emon deutsie, eta emaitzak hor dagoz: Argentina, mundialetik kanpora geratzeko dago. Jokalarik onak elkarren ondoan ipintzea ez da nahikoa. Talde guztiek estruktura bat behar dabe, eta landu egin behar dira.

Talde bat edo selektzio bat zuzentzea ez da bordin, baina... ez daukat zalantzarik: jokalarik izatea bat da eta entrenatzaile beste bat.

Adituarentxokoa

Landako goraino beteta goi mailako partiduan

Bruesak 76-66 irabazi zion Bilbao Basketi; bihar, emakumeen lehenengo mailako lehia



Gipuzkoarrak gehiago izan ziren martitzenean. J. Fernandez

Tabirakoren 50. urteurrena dela-eta, Bilbao Basketen eta Bruesaren arteko partiduetan ikusmin handia eragin zuen. Lepo bete zen Landako kiroldegia, 1.000 lagun ingurugaz.

Partidua oso orekatua izan zen. Gipuzkoarrak aurretik joan ziren partiduetan zatirik handienan, baina alde erabakiorrik hartu barik. Hirugarren laurdenan bilbotarrek aurrea ere

hartu zuten (55-54). Azken laurdenean Bruesa freskoago agertu zen, eta eurentzat izan zen garaipena.

Bihar, 19:30etik aurrera, emakumeen lehen mailako partidua jokatu dute Landakon: Hondarribia-Irun eta Perfumarias Avenida taldeen artekoa.

Bestalde, gaur, 17:30ean, Tabirako klubaren aurkezpen ofiziala egingo dute. ■ J.D.

lazko taldea mantenduz, ederto ekin dio Elorriok Lehen Erregionalari

Errigotiri 3-1 irabazi zioten lehenengo jardunaldian; asteburuan Urdulizen jokatuko dute



Ligari hasiera bikaina eman diote elorriarrek. Kepa Aginako

Lehen Erregionalean amestutako estreinaldia izan du Elorriok. Eleizalden 3-1 irabazi zioten Errigotiri eta zaleek animoso ospatu zuten taldearen estreinaldia garaipena. Elorriok ez du denboraldi berriko fitxaketa askorik egin: Antxon Uriarte bakarrik ekarri dute. Horrez gainera, gazteen taldetik jokalaria bi igo ditu: Aritz Urtueta eta Beñat de la Cruz. Beraz, lazko blokeak du maila berriari eusteko ardura.

Hiru jokalaria berri ditu Elorriok; horietako bi gazteen taldetik igota

Mailari eustea helburu duten taldeentzat garrantzitsua izaten da ondo hastea. Ligan lehenago edo geroago beti etortzen dira pattalaldiak, eta ordura arte pilatutako puntuek baldintzatzen dute bolada txarrari malgutasunez aurre egin edo beharrek estututa.

Asteburuan Urdulizen zelaian jokatuko dute. Urdulizek 0-1 irabazi zuen Atxulaurren zelaian: "Ez dugu Urdulizen gaineko datu askorik, baina Atxulaur indartsua izan ohi da etxean, eta han irabazi badute zerbaitegatik da", dio Angel Díez berritzarren entrenatzaileak.

Bestalde, Elorrioko klubak berregituratu egin du bere organigrama. laz arte talde bi zituen

gazte mailan; horietako bat desagertu egin da, jokalaria falta zirelako. Baina talde berri bat sortu dute nagusietan, eta talde horrek Hirugarren Erregionalean jokatuko du. Emakumeentan talde bi zeuden kadeteetan, eta bakarrik jarraituko du. Indarrak batu dituzte maila hobeko taldea osatzuz.

Iurretako eta Zaldua

Zalduak eta Iurretakok etxean jokatuko dute. Lehenengo jardunaldian Zaldibarko taldeak hiru puntuak batu zituen Gazteluzarraren zelaia egindako bisitan; Iurretakok, berriz, husna berdindu zuen Lekeition.

Hain zuzen ere, Zalduak Lekeitioren kontra jokatuko du, bihar Solobarrian. Iurretakok Berriatuko hartuko du. Berriatukok 2-0 irabazi zion Zamudio Bri, eta eurak dira mailako lehenengo liderrak. ■ J.D.

Elorriok talde berria du aurten Hirugarren Erregionalean

Zalduak eta Iurretakok etxean jokatuko dute Lekeitioren eta Berriatukoren kontra

Agenda

ARETO-FUTBOLA OHOREZKO A MAILA

Sasikoa -

Castro Urdiales

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga -

Suisaco Armentia

Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

FUTBOLA

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Iurretako - Berriatuko

Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain

Zaldua - Lekeitia

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

SASKIBALOA

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué -

Irlandesas

Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

PILOTA

XXVI. SAN FAUSTO

TXAPELKETA (zesta-punta)

Gernika - Bartzelona

Durango A - Vasconia

Zapatuan, 17:30ean, Durangoko Jai-Alai frontoian

Durango B - Andoain

Cabanillas - (Gernika -

Bartzelona)

Zumaia - (Durango A -

Vasconia)

Zapatuan, 17:30ean,

Durangoko Jai-Alai frontoian

CAFES BAQUE PILOTA

TXAPELKETA

Gerena - Etxebarria

Obregon - Mendiola

Izurietia - González

Ezkurdia - Urkijo

Asteazkenean, 19:00etan,

Atxondoko frontoian. Kadete eta gazte mailako partidua.

Osa eta Txueka garaile Sorginen Lasterketan

Arrakastatsua izan zen Sorginen Lasterketa maratoi erdiaren bigarren aldia. laz 135 lagunek amaitu zuten lasterketa; aurten ia bikoitzak. Gizonetan Aitor Osak irabazi zuen (1.58.16) eta emakumeetan Maitane Txuekak (2.38.20). Osa iazko markatik 13 segundora geratu zen.

Eskualdeko korrikalariei dagokienez, Roberto Iturralde

durangarra izan zen lehenengoa gizonetan (2.18.45) eta Jaione Guezala elorriarra emakumeentan (2.53.29). ■ J.D.

Osa iaz lonut Zinkak jarritako markatik 13 segundora geratu zen

Durango-Ilarduyaren aurkezpena Goienkalen

Bihar, 12:30ean, Durango-Ilarduya errugbi taldeak aurkezpen ofiziala egingo du Goienkalen, Rugby tabernaren aurrean. Taldea herritarrei gerturatzeke asmoz eta jai giroa sortu guran erabaki dute aurten aurkezpena modu horretara egitea.

Talde bakoitzeko argazki ofizialak atera ondoren, jokatzeke baloiak eta miniatrazko

Taldea herritarrei gerturatzea eta jai giroa sortzea du helburu DRTk

beste batzuk erragalatuko dituzte bertaratzen direnen artean. Luis Alegre errioxako ardoa dastatzeko aukera ere eskainiko dute. Ondoren, denak Getxora abiatuko dira, lagunarteko partidua jokatzeko, kategoria guztietan. Emakumeen partidua 15:00etan hasiko dute, eta beste guztiak jarraian jokatuko dituzte.

DRTk jakinarazi duenez, aurten emakumeen taldea Arrasateko hainbat jokalarigaz indartu dute; horregatik, ligan Durango-Arrasate Rugby Taldea legez eman dute izena. ■ J.D.



kirol errota

KIROLERROTA GIMNASIOA
Intxaurren kalea, 54
48200 Durango

kirolerrota@ibaizabalikastola.org
94 621 60 21 •
www.ibaizabalikastola.org

ASTELEHENETIK IGANDERA ZABALIK 07:00ETATIK 00:00AK ARTE

Jarduerak: *euskaraz*

- Cycling
- Just Pump
- Ars Corpore
- Kick-boxing
- Sabel-dantza
- Yoga

27



euro / hilean

ZERBITZUAK

- Tenis eta padel pistak
- Sauna
- Masajea
- Aparkalekua

Entrenamendu eta dieta pertsonalizatuak diseinatzeko ditugu, aditu batek egindakoak.

IRAGARKIAK



LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai

Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

LANA

ESKAERAK

Durango. Neska gazte euskalduna behar da arropa denda batean lan egiteko. Bidali kurrikuluma argazkiarekin helbide honetara.
E-mail: dendadurango@gmail.com

Andre euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko.
Tel.: 94 622 50 48

Abadiño. Ileapaindegi batean lan egiteko neska bat behar da.
Tel.: 94 681 78 80

Elorrio. Pertsona bat behar da garbiketa orokorra egiteko enpresa batean. Tel.: 94 658 44 15

Sukaldari laguntzailea behar da. Asteburuetan jai. Tel.: 666 484 210

Durango. Goizetan (7.30-9.00) umea ikastolara eramateko neska edo emakume euskaldun baten bila nabil. Tel.: 653 012 011

Zaldibar. Gazteleku (ostiraletik igandera) eta Zapatublaiko(zapatu bat bai eta bestea ez) hezitzaile bila gabilta. Beharrezkoa da 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz ondo jakitea eta haur nahiz gazteekin jarduteko trebea izan eta gogoia edukitzea.
E-mail: haurrak@txatxilipurdi.com
Tel.: 943 79 54 46.

Durango. Umeak zaintzeko emakume euskalduna behar da. Irailean zehar 5 ordu goiz/arratsaldez eta urrian zehar 2 ordu arratsaldez. Tel.: 616 748 109

Pertsona bat behar da umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. 07:30etik 11:00etara. Kotxea izatea derrigorra da.
Tel.: 660 723 602

Durango. Zerbitzaria behar da mahaia zerbitzatzeko. Derrigorra da esperientzia izatea, kotxea izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.207. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Sukaldaria behar da menuak eta pizzak egiteko. Derrigorra da urtebeteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.208. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenurako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruen informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du euskaraz lan egiteko. Derrigorra da Kazetaritzan lizentziatua izatea, EGA izatea, Quarkxpress eta Photoshop programak menderatzea eta Durangaldean bizitzea. 8 orduko lanaldia, 2009ko urrian hasi eta 2010eko iraila arteko kontratuarekin. Erreferentzia: 6.555. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Iurreta. Elektromekanikoa behar da kontrol mumerikoen programaziorako, kableatua eta armairu elektriko muntaiarako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.598. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Filologoa behar da elkarte bat dinamizatu eta kudeatzeko. Derrigorra da lizentziatura edukitzea Euskal Filologian edo Enpresaritzan, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.644. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda.

Durango. Saltzailea behar da denda batean egun erdiz lan egiteko, astelehenetik larunbatera. Derrigorra da euskaraz jakitea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.789. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Elorrio. Etxeko enplegatua behar da. Derrigorra da esperientzia izatea, kotxea izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.791. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Sukaldaria behar da eguneko menuak eta dieta bereziak egiteko erresidentzia eta eguneko zentroetan. Derrigorra da heziketa eta esperientzia izatea. Erreferentzia: 6.850. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAINTZAK

Neska euskalduna arratsaldetan umeak zaindu zein klase partikularrek emateko prest. Tel.: 653 712 460

Elorrioko neska bat etxetan ilea apaintzeko prest dago, astelehenetik ostiralera arratsaldez, eta zapatu goizetan. Tel.: 637 315 085 (Iraia)

Neska gaztea haurrak zaintzeko eta arratsaldetan edozein lanetan orduka aritzeko eskaintzen da.
Tel.: 615 716 232

Neska euskalduna portalak eta tabernak (gauez) garbitzeko prest.
Tel.: 664 142 904

Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Aste barruan gauez. Tel.: 650 610 194

Gizon heldua eta esperientziaduna nagusiak edo gutxitu psikikoak zaintzeko prest. Laguntzaile psikiatriko teknikoa naiz. Tel.: 636 025 493

Magisteritza ikasitako neska esperientziaduna klase partikularrek eman, haurrak zaindu, eskolara eramane edo etxeko lanak egiteko prest. Kotxea daukat. Euskalduna. Tel.: 615 735 385

Esperientziadun neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest dago. Baita beste edozein lan egiteko be. Tel.: 690 776 431

Elorrio. Irailetik aurrera, arratsalde ume txikiren bat zaintzeko prest nago. Euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna naiz. Tel.: 635 704 512

Haur hezkuntzako ikasketak amaituta dituen neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 667 263 411

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Durango. Pisua salgai Jesuiten inguruan. 3 gela, 2 komun, eskatza eta egongela. Balkoi bi ditu. Garajea eta barbakoa ere bai.
Tel.: 618 555 452

Elorrio. Atiko berria salgai. 50 m2. Logela, sukaldea, egongela, komuna eta igogailuarekin. Oso polita.
Alokatzeko aukera. Tel.: 606 043 835

Zaldibar. Pisua salgai. 75 m2 ditu, 3 logela, egongela eta ganbara ere badu. Prezio ona. Tel.: 655 739 792

Elorrio. Etxebizitza salgai herri barruan. Igogailuarekin. Logela eta komun birekin. Trastelekua be badauka. Tel.: 657 793 993

Elorrio. Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, estudioa eta trastelekua. Guztiz berritzatua, eguzkitsua eta oso polita.
Tel.: 617 787 165

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altxariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisua alokagai Zelaian.
Tel.: 699 295 914

Elorrio. Pisua alokagai.
Tel.: 637 022 444

Txalet txikia urte osorako alokagai Ramalesen, Kantabrian.
Tel.: 653 733 457

Durango. Pisua alokagai Kalebarrian. Logela bi. Hirugarren solairua, igogailuagaz. Eraikin berria. Urriaren 1etik aurrera.
Tel.: 686 989 963 - 696 163 532

Durango. Pisua alokagai. 3 logela, berogailua eta igogailuarekin.
Tel.: 638 125 838

Zaldibar. Pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
Tel.: 655 739 792

Zaldibar. Logela bat dut alokagai.
Tel.: 655 739 792

ERRENTAN HARTU

Durango. Semeagaz konpartitzeko alokairuko pisu baten bila nabil.
Tel.: 605 749 443

KONPARTITU

Durango. Logela alokagai Durango erdialdean dagoen etxe berri batean.
E-mail: lagunok@gmail.com

Elorrio. Neska bat behar da pisua konpartitzeko. Tel.: 634 462 503

MOTORRA

SALGAI

BMW 318 IT salgai. 98. urtekoa. Gasolina. 143 zaldi. Pack M. 171.000 Km. 4.500 euro, negoziagarria.
Tel.: 662 040 493

Durangaldeko Behargintza
Euskal Herriko Garapen Agentzia
Agencia Comercial de Desarrollo

Bizkaiko Foru Aldundia
Larrea Trilakuntza Saria

2009/2010 IKASTURTERAKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

MEKANIZATU ARRUNTEAN ETA CNCn TEKNIKARIA.....	275 ordu
PRAKTIKAK.....	102 ordu
GERIATRIA-ERIZAINZAN LAGUNTZAILEA.....	278 ordu
PRAKTIKAK.....	240 ordu
INDUSTRIAN ELEKTRIZITATE-MANTENIMENDURAKO LANGILEA...	320 ordu
INDUSTRIA-DISEINUA 2D eta 3D.....	215 ordu
GERIATRIA-ERIZAINZAN ADITUA.....	215 ordu
BIZKARTZAINA ETA LEHERGAILUEN ETA SEGURITASUNEKO JAGOLEA.....	215 ordu
SUKALDE ETA TABERNA LAGUNTZAILEA.....	215 ordu

Izena emateko epea: 2009ko uziaren 16a arte

Durangaldeko Behargintza

Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com



Ford Mondeo 1.8 TD salgai.
1997koa. Egoera onean. 2.000 euro inguruan. Tel.: 691 063 278

Opel Corsa1.7d salgai. 277.000km. 600 euro. Tel.: 656 721 810

EROSI

Erabilitako karabana erosiko nuke.
Txikia eta merkea. Tel.: 94 621 82 88
(Deitu gaueko 22:00etatik aurrera)

LOKALAK

SALGAI

Elorrio. Pabilioiak salgai. 360 m2 eta 630 m2. Tel.: 657 793 993

ERRENTAN EMAN

Iurreta. Garajea alokagai. Itxita. Tel.: 94 681 60 27

Durango. Garaje itxia alokagai Landako inguruan. Tel.: 652 865 780

Abadiño. Garajea alokagai Matienan, Pinako plazaren azpian. Tel.: 94 681 70 67

Elorrio. Garajea alokagai Labakuan. Tel.: 680 597 379.

Abadiño. Muntsaratz auzoan ileapaindegia traspasatzen da. Tel.: 662 554 077

IRAKASKUNTZA

EMAN

DBHra arteko klase partikularrak ematen ditut. Italiara eta ingelesa ere bai. Tel.: 651 709 327

Matematikako klase partituklarrak ematen dira. Elorrion edo inguruetan. Tel.: 636 025 493

Lizentziatua laguntza klaseak emateko prest, bakarka. LH, DBH eta Batxiler-goa. Tel.: 686 810 203

HARTU

Ingeleseko maisua behar da bakarka-ko klase partikularrak emateko. Tel.: 615 007 216

Italiera klase partikularrak jaso gura ditut. Durangon edo Durangaldean. Tel.: 620 218 271

ANIMALIAK

SALGAI

Ahuntzak salgai. Azpigorri arrazakoak. Tel.: 94 621 82 57

Spaniar Breton arrazako txakurra salgai. Hiru hilabete eta erdikoa. Bakuna guztiak hartuta eta ehizarako prest. Tel.: 94 658 33 53

Lau mozal angloarabe eta gurutzatu bat salgai. Urte bat eta bi bitartean. Papelekin. Tel.: 677 602 160

Oilo eta oilasko txikiak salgai. Tel.: 639 391 697

OPARI

Artzain txakur emea oparitzen dut. Hiru hilabetekoa. Tel.: 616 936 351

BESTEAK

SALGAI

Berogailu elektrikoa salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Arkoizozkailua salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Etxeko kanpaia salgai. Isla estilokoa. Ia-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa. Tel.: 94 622 56 73

Play Station 3 salgai. 80 GB. Ia erabili barik. Jokoak eta mandoak oparitzen ditut. 225 euro. Tel.: 606 307 439

Karreratako bizikleta eta ziklo kroseko bizikleta salgai. Tel.: 648 260 880 (Maite)

Erabilitako CDak salgai. 400 inguru dira. Txollo ona da, benetan Tel.: 606 266 244

Bizikleta koadroa salgai. Berria da, Goka Knife modelo. Tel.: 686 651 382

Neopreno laburra salgai. Madmess Titanium. Berria da, erabili gabekoa. Etiketekin. Beltza eta gris iluna. Neurria "S"~155cm. Tel.: 658 738 734

BEREZIAK

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurilaritza erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

INMOBILIARIAK



AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak salgai.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Errentenbu: Adosatuak eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztuta)
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guzti berriztuta eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Herriko Gudari kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde-jantoki, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Iparraguirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, sukaldea, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Sasikoa: Halla, egongela, sukalde-jantokia jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara. Jantzia.
- Tronperri kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Jantzia.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Urkiaga-Torre kalea: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukaldea jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+BEZ
 - 2 logela garajea eta trastelekuarekin 230.000+BEZ
 - 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+BEZ
 - 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Askatasun kalea: 4 logela, egongela, sukaldea eskegitokiarekin eta 2 komun. Ganbara, garajea eta trastelekua.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.160 m2-ko lursaila.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durango: Ermodo kalean. 90 m2.
- Durangaldea: Baserri eta txalet ezberdinak, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta...
- Durangaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
- Durangaldea: Pabilioi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Alluitz: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Prezio ona.
- Mañaria: Etxebizitza erdi berria bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Ezkurd: 130 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. Izugarria.
- Landako: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 2 terraza eta garajea. Ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela. Ikuspegi zoragarriak.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazio: Beheko solairua. Pertsona ezinduendako aproposak.
- San Inazio: 90 m2. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Ermodo: 90 m2.
- Madalena: 2 edo 3 logelako etxebizitzak.
- Herriko Gudarien kalean: 135 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. TERRAZA handia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastele-kua.
- Landako-Txibitena: 2 eta 3 logela.
- Txibitenan: 3 logela, egongela, 3 komun, sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garaje aeta trastelekua.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4. inmobitelnet.com
Tel.: 94 681 40 40 DURANGO

ETXEBIZITZA SALGAI

- Durango: Aukera ona. Bizitzen sartzeko prest. 156.300 €.
- Plateruen Plaza: Atikoa. Estreinatzeko. 2 logela. Terraza handia. Garajea.
- Durango: Estreinatzeko. Logela bakarra. Sukaldea jantzita. 192.000 €.
- Tronperri: 115 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txokoa.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzen sartzeko prest.
- Pinondon: Duplexa. 126 m2. Guztiz kanpora ematen du. Ikuspegi ikusgarriak.
- Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Franzisko Ibarra: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. 2 Terraza. Garaje itxia.
- Murueta Torre: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- J. Olazaran kalean: 3 eta 2 logela. 2 komun. Erdi berria.
- Tronperrin: 115 m2. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txokoa.
- Durango: Estreinatzeko. 2 logela. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea eta ganbara.
- Tabira: 2 logela eta 2 komun. Berria. Eguzkitsua.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdin: 70 m2. 1.go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia. IURRETA
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia. Bizitzen sartzeko prest.
- Maspe kalean: 3 logela eta egongela. Igogailua. Berogailua eta terraza. Bizitzen sartzeko prest.
- Zubiaurre: 3 logela. Bizitzen sartzeko prest. Guztiz jantzia. 210.000 €.
- Dantzari kalean: 2 logela. Aukeran. 190.550 €.
- ABADIÑO
- A.Baesclin: 3 logela. 192.000 €.
- Trañaetxosten: 3 logela. 210.000 €.
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi jantzia.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trastelekua. Garajea.
- Matiena: 3 logela. 180.000 €.
- ZALDIBAR / BERRIZ
- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea. 201.188 €. (33,5 mill.).
- Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.
- Berriz: 2 logela. Berriztatua. 154.500 €.



Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ed. DURANGO
TF: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 m² hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 m²-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde -jantokia, komuna eta esekitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiare-kin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

ELORRIO

- Erreka kalea: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz berriztatua.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisolo: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Ia berria. Estreinatzeko.

ATXONDO

- 2 logela, 2 komun, sukaldea, esekitokia eta egongela. Garajea. Berria, estreinatzeko. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI

ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.

ELAIA Information Technology >

Zein da nire aukera?

HP Pavilion DV2-1025 12.1"

AMD Athlon Neo 1,60 Ghz
2GB Ram memoria
320GB disko gogorra
USB, WIFi, Bluetooth
Win. Vista Home sistema eragilea
DVD-RW GRABAGAILUA OPARI



COMPAQ PRESARIO CQ71 17.3"

Intel Pentium 2 Ghz Dual Core
4GB Ram memoria
250GB disko gogorra
USB, WIFi
Win. Vista Home sistema eragilea
MALETINA OPARI



COMPAQ PRESARIO CQ61 15.6"

Intel Pentium 2 Ghz Dual Core
4GB Ram memoria
500GB disko gogorra
USB, WIFi, Bluetooth
Win. Vista Home sistema eragilea
MALETINA OPARI



APPLE MACBOOK PRO 13.3

Intel Core 2 Duo 2.13 Ghz
2GB Ram memoria
1600GB disko gogorra
USB, WIFi
Mac OS X sistema eragilea

AUKERA EGITEN LAGUNDUKO DIZUGU

TAMAINA/PISUA: 9" eta 17" bitartean daude gehienak. Lehenak, mugikortasun handia eskaintzen dute baina ez dira ordu askoan lan egiteko. Gainera lan konkretuetarako mugatuak dira. Besteek, berriz, pisu handia dute alde batetik bestera eramateko.

PROZESADOREA: Bi fabrikatzaile nagusi daude: Intel eta AMD. Biek ematen dute emaitza ona.

RAM MEMORIA: Momentuan programa bat exekutatzeke beharrezko informazioa gordetzen duen memoria da, oso azkarra baina ordenagailua itzaltzean ezabatzen den memoria. Sistema eragileak kudeatzen du. Gomendioa: 2GBtik gora izan dezala.

DVD-RW: CD eta DVD-ak irakurri zein grabatuko ditugu. Gaur egun ohikoena DVD grabagailua izatea da.

SISTEMA ERAGILEA: Windows, Linux eta Mac OS dira aukera nagusiak. Ordenagailua eta gure arteko komunikazioa posible egiten duen programa da.

KONEXIOAK: Bluetooth (mugikor, inprimagailu, eta hainbat gailu haririk gabe konektatzeko), WIFI (hari gabeko internetera konexioa), USB portuak (ohiko inprimagailuak, usb memoriak etab. konektatzeko).

Information Technology S.L.

Zure sistema Informatikoa ez da umeen jolasa.
Kontratatu zerbitzu profesionala:
KONTRATATU elaiA

www.elaiA.es • e-mail: info@elaiA.es • Tel.: 94 640 98 98

KONTSULTAK BIDALTZEKO:

anbototik@elaiA.es e-mailera idatzi.
Gehienez 200 karaktereko kontsulta.

KONTSULTAK EGITEN DITUZUENEN ARTEAN ANTIBIRUS BAT ZOZKETATUKO DUGU.
Bidalitako datuak erabiliz, irabazlearekin zuzenean jarriko gara kontaktuan.

* Bi hilerik behin egingo dugu zozketa jasotako email guztien artean

AKUILUAN

■ Jone Guenetxea ■ Argazkia: David Maeztu

LAUHORTZA



Iñaki Sánchez
Irakaslea

"Egunerokotasuna ulertzeko modu bat eskaintzen dugu"

Txokomarrubizko musu piloa banatu zituzten Porrotx eta MariMototsek lurretan

Frontoi bete ume batu zituen Pirritx, Porrotx eta MariMototsen ikuskizunak joan zen ostiralean lurretan. Eskualdeko 'piratek' ez zioten pailazoen hitzorduari hutsik egin. Abordatzera etorri ziren, eta helburua lortu zuten.

Iurretako piratek faltan bota zuten Pirritx.

Porrotx. Pirritx haurdun dago, eta gainera bikiak dira. Taldean oso pozik gaude, horrelako berriak beti direlako pozgarriak. Sendagileak atsedean hartzeko esan dio, dena ondo-ondo joan dadin.

Antzezlanak moldatu egin behar-ko zuten...

MariMotots. Kontuan izan gure lanbidea ez dela ohikoa. Pertsonaia bakoitza bakarrenez, sarri aterata gara eszenatokira gaixorik, edo senideren bat gaizki zegoela. Hala ere, ezin denean,

moldatzen gara beste zerbaitegiteko. Hala ere, abestiak egiten eta disko berria grabatzen lagunduko digu.

Pirritx etorri ez arren, lurretan arrakasta izan zenuten.

Porrotx. Lagun arteko harrera egin ziguten. Sarritan izan gara herrian eta inguruetan. Lagunak gara. Anekdotak moduan, saioa hasi aurretik Pirritxek ez zuela etortzerik azaldu genuenean jendea txaloka hasi zela esango dizut. Sentitzen dugu familia baten parte garela, eta, guri horrelako zerbaite gertatzerakoan jendea gurekin poztu egiten da, eta zerbaite tristetako gertatuko bali-tzaigu

jendea tristetu egingo litzateke. Tristurak eta pozak beti diragozokoak partekatzen direnean.

Zein da arrakastaren sekretua?

MariMotots. Mundu bat eskaintzen dugu. Egunerokotasuna ulertzeko modu bat. Euskaraz egiten dugu, balore batzuekin, izateko modu batekin, mundua koloretakoa nahi dugu. Herri eta hizkuntza askorekin. Bizitzaren, gaixotasunaren, familiaren, hizkuntzaren inguruan hitz egiten dugu. Hori bizi egiten da, eta gugana datozenek mundu horren parte izan nahi dute.

Kritikak ere izan dituzue.

Porrotx. Entzun beharko genituzke lehenik, baina horiere bizitza ulertzeko

tzen ditugunean entzun egiten ditugu, hitz egin, aztertu eta zer hobetu daukagula ikusten badugu, aldatu egiten dugu.

Zuen saioek zer osagai dituzte?

Porrotx. Musika, kolorea, dantza, alaitasuna... Marrubizko eta txokolatzeko musuak eskaintzen ditugu, ilargiraino eta buelta maite dugula jendea esatea, oso politak direla... Nik hori Porrotxengandik ikasi dut.

Zein da saioen helburua?

Porrotx. Hasieran euskara eta alaitasunaren helburua. Urteen poderioz, horri baloreak gehitu genizkion. Hasieran sketchak egiten genituen. Ondo pasatzeaz gainera, gizarte bizi ditugun eguneroko gaiak lantzea nahi genuen. Gaiak lantzerakoan, haratago joan nahi dugu.

Hurrengo proiektua?

Grabatzen gabiltzan diskoak **Irrien lagunak** izena du. Egunerokotasunean poziketa euskaraz bizitzea posible dela, eta milaka guraso eta haurreke egiten dutela adierazi nahi dugu. 'Sudurgorrien festa' prestatuko dugu ikasturteari amaiera emateko. Borobilean eseri eta ikasturteko errepasoak egingo dugu. Musikari eta dantzariekin sorpresa ugari izango ditugu. Kantatzen duen herria zoriontsua dela adierazi nahi dugu. Hurrengo ikuskizunak ere diskoaren izena izango du.

Joxe Mari Agirretxe • Mertxe Rodriguez •

■ Lasartearrak dira

■ Disko berria grabatzen dabilta

Maitasun perfektua

George Ar. Dagerre Jauna Dakar hiriko Real Center Unibertsitatean irakasle dugu. Gizona psikologian eta giza- portaeran trebatu da. Aurretik sari bat edo beste lortu izan du, hain daikerlari prestu eta bikaina zeregin horretan. Duela gutxi, aditu horreke gindako azken lana argitaratu da. Ikerketa horren arabera, gizakiokegin ohi ditugun maitasun ekin-tek berekoikeria dute oinarri; nahiz eta gero, ekin-tza gauzatzeko prozesuan, beste hamaika eragilek parte hartu. Hots, maitasun keinu eta jarreraren atzean norberekeria dugu ageri. Itxura denez, gizakiok dugun sentimendurik ederrenean osagarri okerra tartekatu zaigu konturatu gabe. Orduan, gauza bera pasatuko al da laguntasunarekin, ontasunarekin eta gainerako guztiekin?

Ez dakigu; baina, beltzune horrek maitasunari ez dio baliorik kentzen. Alderantziz, maitasunean inperfekzioa egoteak sentimendu gizatiarrago bihurtzen du. Izan ere, paradoxa eta, oro har, sentimendu kontrajarrak izatea geure-geurea dugu; zurian beltz eta beltzean zuri.

Behinola jakintsu batek esan zuen bezala, bizitzak ekartzen dizkigun kontraesanetan noraezean ibiltzen garenean, afektu eta baloreetan dugu aingura. Hortaz, maitasun posiblea maitasun inperfektua da, horrela maitasun perfektua izanik.

Oharra: Egunero, hotz zein bero, maitasun pluskuan-perfektuan jarduten duten abenturazale kementsu eta ausartei eskainia.



GALDERA:

Zer auto etxek aurkeztuko dau auto barria Klasikoen Rallyan?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jatetxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Baldu erantzunak: Bixente Kapanaga, 9 lurreta edo asteakaria@anboto.org helbideetara. Hilaren azken alean agertuko da irabazlea.

